

2019ko Kudeaketa Plana

2018KO KUDEAKETA-PLANA

AURKIBIDEA

SARRERA 1

1. DEBABARRENEKO PLAN ESTRATEGIKOA..... 3

2. KALITATEAREN ETA SISTEMEN KUDEAKETA. 35

3. LAN-ARAUDIA..... 38

4. GUZTIZKO GASTU ARRUNTAREN AURREKONTUA 45

SARRERA

Jarraian aurkeztuko dugun 2019ko Kudeaketa Planaren formatua aldatu egin da. Aurreko urteetan, dokumentua prozesu bidezko kudeaketaren araberrakoa zen. Oraingoan, ordea, LERRO ESTRATEGIKOETAN oinarrituta dago. Horri esker, prozesu bidezko azalpenean bikoiztasunik gertatzea saihestuko da.

2018an zehar, eskualdeak enplegua berreskuratu du. Dena den, oraindik ere, zenbait kolektibok oztopo gehiago dituzte lana lortzeko, besteak beste prestakuntza- eta gizarte-arloetan zailtasunak eta gabeziak dituztelako. Hori dela eta, proiektu esperimental bat proposatu dugu –dokumentuan ageri denez–: Debabarreneko gizarteratze- eta laneratze-sarea. Enplegu-egoerarik ahulenean dauden pertsoneri laguntzea du helburu sare horrek.

Halaber, 2019ko ekitaldian, Debabarrenak bultzada handia jasoko du industria-eskualdea berriro izateko. Ildo horretan, 2018an zehar, eskualdea posizionatzeko bi jarduera prestatu ziren; alde batetik, enpresentzat eskualde erakargarria dela jakinarazteko, eta, beste batetik, lehiakortasuna handitzeko. Jarduera horiek 2019an zehar hedatu eta martxan jarriko dira.

2019ko ekitaldia enpresaren hogeita hamahirugarrena izango da, eta haren xedeak bere horretan jarraitzen du: berrindustrializazioa sustatzea, jarduera ekonomikoa oro har (bigarren eta hirugarren sektoreak) indartzea, langabeziaren ehunekoa digitu batekoa izatea, eta ekonomia- eta gizarte-eragileekin lankidetzeta-harremanak ezartzea, aipatutako helburu guztiak elkarren artean betetzeko.

Arreta berezia jarriko da energian. Hain zuzen, egungo energia-eredua aldatzeko saio ausart bat egingo da, energia-pobrezia deuseztatuz –ereduaren aldaketaren ondorioz– eta aldaketaren oinarriak finkatuz. Hori guztia udalen eta administrazioaren eskutik.

2019an zehar, 2018-2022 Ekintza Plana –Debabarreneko 2020rako Garapen Iraunkorrerako Estrategiaren berrikuspenaren ondorioz sortua– martxan jartzeko prozesuak aurrera jarraituko du. Estrategia hark eskualdeko proiektu estrategiko hauek proposatu zituen:

- DEBABARRENA, INDUSTRIA-LURRALDEA, LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA.
- NATURA-TURISMOA ETA KULTURA-TURISMOA: JOMUGA DEBABARRENA.
- DEBA IBAIA, ESKUALDEAREN ARDATZA.
- ESKUALDEKO BURUAREN HIRI-BERRITZE IRAUNKORRA
- DEBABARRENA, ENERGIA ADIMENTSUA.
- MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN TRENERA IGOTZEA.
- GURE BALIOAK.
- ENPLEGAGARRITASUNAREN HOBEKUNTZA.

2019ko lehen hiruhilekoan, eskualdeko strategiaren aurrerapen- eta garapen-mailaren berri emango zaio udal bakoitzari (talde politikoa eta teknikoa). Hain zuzen, dagoeneko burututako jarduketak eta kudeaketa-plan honetan proposatutakoak azalduko zaizkie udalei.

Jarraian, proiektuak ageri dira, aipatutako proiektu estrategikoak proposatutako lerro estrategikoen arabera azalduta.

1. DEBABARRENEKO PLAN ESTRATEGIKOA.

1.1. BESTE GOBERNANTZA-EREDU BATERANTZ ABIATZEA.

2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren Berrikuspen Partziala - 2022rako Jarduketa Proposamena dokumentuaren esparruan, helburu nagusietako bat Debabarreneko udalek (teknikariak eta politikariak) eskualdeko estrategian parte har dezaten sustatzea izan da.

Atal horretan, partaidetzarako mahaiak, foroak eta gainerako organoak aztertuko dira, eskualde-mailako estrategiak eta proiektuak garatzen lagundu dezaketenak. Sare-lana funtsezkotzat hartzen da.

1.1.1. GIZARTE- ETA EKONOMIA-ERAGILEEK ESKUALDEAREN GARAPENEAN ERANTZUNKIDETASUNEZ ETA AKTIBOKI PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.

A. GURE BALIOAK IX.

DEBEGESAK Gure Balioak saria antolatzen eta sustatzen du 2010ean sortu zenetik. Sari horren bidez, aintzatespen publikoa ematen zaie Debabarreneko gizarte-balioen esparruan izandako lanagatik bereizten diren pertsoneri. Debabarreneko balio bereizgarriak eta aipagarriak, Gure Balioak proiektuaren bidez indartu eta balioetsi nahi direnak, honako hauek dira: errespetua, zuzentasuna, ekintzailtza eta lankidetzeta.

Hamargarren urtean, Gure Balioak saria emateko ekitaldia Eibarren egingo da. Dagoeneko, Debabarreneko udalerrri guztiek antolatu dute.

Aurrekontua: 3.000,00 €

Finantzaketa-plana: espero diren ekarpen pribatuak: 1.000,00 €; eta Kudeaketa Plana: 2.000,00 €

B. ESKOLAKO AGENDA 21.

2018-2019 ikasturtean, Debegesak Eskolako Agenda 21 proiektua zuzendu eta koordinatuko du, Debabarreneko udaletako langile teknikoaren eta politikoen lankidetzeta eta parte-hartze estuekin. Debabarrenean Agenda 21 proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek hondakinen gaia jorratuko dute. Proiektu horren helburu nagusiak hauek dira oraindik ere:

- Debabarreneko (Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Soraluze, Eibar eta Ermua) ikastetxeek eta, hain zuzen ere, ikasleek euren udalerriko Tokiko Agenda 21 garatzen parte har dezaten lortzea.
- Ikasleak trebatzea, haiei errespetuaren eta lankidetzaren balioak azalduz, herritar kritikoak eta parte-hartzaileak izan daitezen.
- Eskola eredugarria izatea, ingurumenaren eta gizartearen aldeko jardunbide onei dagokienez.

Debegesak egingo dituen ekintzak:

- Hezkuntza-materiala diseinatzea eta egitea, prestakuntza-ziklo bakoitzera egokituta. Neurri batean, ekintza horiek EJren diru-laguntzaren mende egongo da.
- Ikastetxeekin egin beharreko koordinazio-bilerak: 9.
- Irakasleen prestakuntza: bi prestakuntza-saio antolatzea eta dinamizatzea.
- Udalen eta ikastetxeen arteko bilerak. 6.
- Ikastetxeen arteko foroak, ikastetxeen beraien beharren arabera: gehienez, 5 (Eibar, Ermua, Deba, Mutriku eta Elgoibar).
- Udalen osoko bilkurak: 7 (bat udalerrri bakoitzean).

Aurrekontua: 21.763 € + BEZ

Finantzaketa-plana: (Diru-laguntzen mende) % 50, EJKo Ingurumen Sailaren diru-laguntza; eta % 50 + BEZ, Kudeaketa Plana.

C. 2019-2020rako AGENDA FISIKOA

2018-2019 ikastererako zehaztutako gaien oinarrituta, agendaren edukiak diseinatuko dira. Kostuaren % 50 udalen edo ikastetxeen kontura izango da.

1.1.2. BARNE-KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEA DEBEGESAK SUSTATUTAKO EKIMENEN DISEINUAN, GAUZATZEAN ETA JARRAIPENEAN.

1.1.2.1. PARTAIDETZA-ORGANOAK ETA ESKUALDEKO MAHAIAK.

A. DEBABARRENEKO ENPLEGU-MAHAIA.

Debegesak 2016tik sustatzen duen mahaia da. Hartan, arloko erakunde eta gizarte-eragile guztiek hartzen dute parte: ikastetxeak, hirugarren sektoreko erakundeak, Eusko Jaurlaritza, Spri, Sprilur, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Debabarreneko udal guztiak. Esparru horren baitan, hiru lan-arlo zehaztu eta hiru sektore-azpimahai eratu ziren, bakoitza eremu batekoa: azpiegiturak, prestakuntza eta lehiakortasuna.

1. **Azpiegitura-mahaia:** Haren helburua da egungo azpiegiturak (pabilioiak eta lurzorua) hobetzea, jarduera ekonomikoa finkatzeko, sortzeko eta erakartzeko.
2. **Lehiakortasun-mahaia:** Haren helburua Debabarrenerako berrindustrializazio-eredu bat garatzea da.
3. **Prestakuntza-mahaia:** Haren helburua eragileen arteko lankidetzaren sare bat sortzea da, langabeak lan-mundura itzultzeko helburu komunak zehazteko eta eskualdeko produkzio-ehunei behar bezala erantzuteko. Mahai horretan, Lanbideak, ikastetxeak, gizarteratze-erakundeak, enpresa-elkarteak, erakundeak eta udalek hartzen dute parte.

B. DEBABARRENEKO GIZARATERATZE- ETA LANERATZE-SAREA (ikus enplegua).**C. ENERGIA-MAHAIA.**

2013. urteaz geroztik, hots, Debabarreneko Energia Estrategia onartu zenez geroztik, Debabarreneko udalak aldizka biltzen dira. Mahai hori Debabarrena eskualdeko energia-eztabaidarako foroa da.

D. DEBABARRENEKO ESKUALDEKO TURISMO-MAHAIA, DEBABARRENEKO TURISMOAREN SUSTAPENERAKO LEHEN PLANAREN 2001EAN ABIAN JARRI ZENETIK

Urtean bi aldiz biltzen da. Kanpinetako, hoteletako, landetxeetako, landa-turismoko establezimenduetako, turismo-bulegoetako, udaletako eta erakundeetako ordezkari banak osatzen dute.

E. ERAGILE PUBLIKOEN TURISMO-MAHAIA.

Debabarreneko udaletako, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak osatua, eskualdeko lan-ildoen jarraipena egiteko biltzen da.

1.1.2.2. PARTAIDETZAKO ETA ESKUALDEZ GAINDIKO ORGANOAK.**A. GIPUZKOA SAREAN.**

Gipuzkoa Sarean Gipuzkoako Foru Aldundiak 2009an martxan jarritako proiektu bat da. Haren helburua da Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna hobetzen eta lurralde-garapenerako eredu berri bat sortzen laguntzea. Haren oinarria ikerketa-ekintzaren metodologia da; hau da, ikerketa eta ekintza aldi berean uztartzen dituen metodologia.

Diputatu Nagusiaren Kabineteko Kudeaketa Estrategiako zuzendaritzatik eta Sustapen Ekonomikoko departamentutik bultzatzen ari dira proiektua. Era berean, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak (Deusto Fundazioa) Aldundiaren kolaboratzaile gisa dihardu, oinarri metodologikoak eta ikasketak zehazten laguntzeko. Horrez gain, lurralde-garapenerako ereduaren eraikuntzan, Gipuzkoako garapen-agentziak ari dira batik bat parte hartzen, eta, zehazki, haietako lehendakariak, zuzendariak eta teknikariak.

2017an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako garapen-agentzia guztiek gobernantza-eredu berri bat garatzeko hitzarmen bat sinatu zuten, ekonomia sustatzeko helburuarekin. Lehen lankidetzak hitzarmen hori 2021era arte egongo da indarrean, eta lankidetzak eredu berri bat zehaztuko du, estrategiak ezartzeko, programak garatzeko eta tresna berriak sortzeko.

Hitzarmenak hau du helburu: lurralderako estrategikotzat hartzen diren proiektuak garatzea, lurraldeko eta enpresa-erloko eragileak eta tresnak elkartuz.

B. GARAPENEN AUTOENPLEGU-FOROA.**C. GARAPENEN AUTOENPLEGU-FOROAN PARTE HARTZEA.****D. EUSKADIKO BHE-AK – EAE-KO BIRGAITZEKO HIRIGINTZA ELKARTEEN FOROA.**

Debegesak foro horretan parte hartzen jarraituko du, Euskadiko Birgaitzeko Hirigintza Elkarteekin batera, BHE guztien helburuak sustatzeko, eta haien zeregina Eusko Jaurlaritzaren eta bestelako erakundeen aurrean indartzeko. Horren azken xedea birgaitze eta berroneratze jasangarria eta integrala sustatzea eta kudeatzea da.

E. GIPIZKOAKO BIZIKLETAREN KONTSEILUA.

Bizikletaren Kontseilua bizikleta-mugikortasunaren gaien aholkularitza-organo gorena da Gipuzkoan.

F. UDALSAREA 21EKO BATZORDE TEKNIKOA.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritzaren mende, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea koordinazio-eta lankidetzeta-foro bat da, Euskadiko udalerrietan Tokiko Agenda 21 dinamizatu eta ekintza-planak bultzatzen dituena.

G. GIPIZKOAKO ENERGIAREN ETA ENERGIA-POBREZIAREN MAHAIA.

Mahaiaren helburua da energiaren arloan eredu eta agertoki jasangarri berrietarako (gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-esparruetan) baterako estrategia bat lortzea.

GEOGARAPEN EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO ELKARTEKO ZUZENDARITZA-BATZORDEA, GIPIZKOAKO TURISMO-MAHAIA, EUSKAL KOSTALDEA, GIPIZKOAKO MICE BATZORDEA.

Turismo-arloko eskualdez gaindiko mahaiak eta foroak (**ikus turismoa**).

1.1.3. ESKUALDEKO UDALERRIEI LAGUNTZEA TOKIKO IRAUNKORTASUN-POLITIKAK PLANIFIKATZEN ETA KUDEATZEN.

ESKUALDEKO BEHATOKI SOZIOEKONOMIKOA.

Aurreko urteetan bezala, Debabarreneko behatokia elikatzeko eta eguneratzeko lanek euren horretan jarraituko dute. Aldi berean, eta eskualdeko adierazle nagusien jarraipena egin dadin errazteko, egoerari, sektoreei eta gaiei buruzko txostenak egiten jarraituko du behatokiak, udalentsat eta udal-departamentuentzat.

Helburuak: behatokiak egindako txosten-kopurua: 15.

1.2. DEBABARRENEKO BERRINDUSTRIALIZAZIO-EREDUA. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA, INDUSTRIA-SAREA LEHENETSIZ, DEBABARRENEKO APUSTU PARTEKATU GISA.

2019an egin beharreko jarduketak diseinatzerakoan, funtsezkoa da ekonomiak hurrengo hiletan izan dezakeen bilakaera kontuan izatea.

2019. urterako, munduko ekonomiaren hazkunde-aurreikuspenek 2017an eta 2018an izandako erritmo onari eusten diote, nahiz eta beheranzko joera txiki batekin.

Oro har, egonkortasun-egoera egongo dela ustea da, baina ez zalantzarik eta arriskurik gabea. Mehatxu nagusiak finantza-merkatuen hegakortasuna eta merkataritza-protektionismoaren gorakada dira.

Euskadin, egoera antzekoa da. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak batez besteko % 2,8ko hazkunde-tasa ezarri zuen 2018. urterako, eta aurreikusten da 2019an hazkundera apur bat txikituko dela, hain zuzen % 2,3koa izango dela¹.

Horrenbestez, berrikuntza, produktibitatea eta nazioartekotzea hobetzen eta inbertsio estrategikoak egiten jarraitu beharra dago, funtsezko espezializazio-esparruetan.

Hori guztia dela eta, DEBEGESAn, enpresa-sarea babesteko eta garatzeko estrategia sendo bat zehazten eta burutzen ahaleginduko gara. Aldi berean, enpresei laguntzeko ekintza espezifikoak egingo ditugu, besteak beste berrikuntza-proiektuak egin, 4.0 teknologia ezarri, kanpora ireki eta talentua erakar dezaten.

Modu orokorrago batean, lurralde-mailan jardungo dugu, Debabarrena enpresa-inbertsiorako lurralde erakargarri gisa posizionatzeko. Elkarren osagarri diren bi lerro garatuko ditugu: bat, enpresak Debabarrenean garatu eta haz daitezten, eta, bestea, gure enpresa-egitura aberastuko duten enpresa berriak koka daitezten.

Lerro estrategiko horren garrantzia dela eta, funtsezkotzat hartu zen hura garatzeko plan espezifiko bat diseinatzea. Hain zuzen, 2018aren amaieran, elkarlaneko eredu batean, ***Debabarreneko 2018-2021 aldirako Industria Lehiakortasunerako Plana egin zen.***

Plan horretan, Debabarrenak industria-eskualde gisa dituen xedea, ikuspegia eta printzipioak jasotzen dira. Gainera, planak eskualdearen etorkizuneko posizionamendua ezartzen du, jarduera ekonomikoko segmentu guztiak aintzat hartuta, eta etorkizuneko estrategia bat zehazten du, ardatzetan, helburuetan eta lerro estrategikoetan oinarrituta. Plan hori martxan ipintzean, gure helburua eskualdeko enpresa- eta industria-egitura sendotzea da, lerro estrategikoak zehaztuz eta lehiakortasuna hobetzeko ekintza espezifikoak ezarriz.

Industria Lehiakortasunerako Planak bere ekintza-plana du, lehiakortasun-estrategia eragingarri bihurtzeko beharrezkoak diren proiektuak zehazteko. Lehentasunen arabera antolatzen ditu proiektuak eta ibilbide-orri batean biltzen ditu. Gainera, Debabarreneko Lehiakortasun Planaren gobernantza- eta jarraipen-eredua ezartzen du, hartan

¹ Iturriak: Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza - Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Lehiakortasunaren Txostena (Orkestra, 2018), BBVAko ikerketa-zerbitzuak.

zehazten diren ekimenen eta neurrien ezarpena behar bezala kudeatzeko, baita estrategia ebaluatzeko adierazleak zehazteko ere.

Debabarreneko 2018-2021 aldirako Industria Lehiakortasunerako Planaren esparruan, honako programa hauek garatuko dira, besteak beste:

1.2.1. DEBABARRENEAN ROBOTIKA ETA AUTOMATIZAZIOA GARATZEKO APUSTUA.

A. DEBABARRENA ROBOTIKA.

“Robotikaren eta automatizazioaren kontzeptualizazioa, eta Debabarreneko industria-sektorean finkatzeko gakoak” hausnarketan eta beste hausnarketa batzuetan oinarrituta, Debabarrena Robotika proiektua garatuko da. Ekimen horretan, robotikarekin eta automatizazioarekin lotutako enpresek, eragileek, erakundeek eta abarrek osatutako lankidetzaz eta lan-sare espezifiko bat eratuko da.

Deskribapena: Gure industria-sektorearen balio-katea oinarri hartuta, robotikaren eta automatizazioaren esparruan Debabarreneko enpresentzat garapen-aukera izan daitezkeen negozio-nitxoetan jarriko dugu arreta. Robotika ezartzeaz eta, dagokionean, robotikarako osagaiak fabrikatzeaz ari gara.

Helburua: industria-ehuna (produkzioa eta osagarria) dibertsifikatzea, batik bat jarduera gehiena sektore helduetan egiten duten enpreetan. Gainera, egungo enpresen lehiakortasuna hobetzea, teknologia horiek haien prozesuetan txertatuz.

Ekintzak: Automatika eta robotika sustatzeko lankidetzaz sarea sendotzea. 2018an, enpresek, lanbide-heziketako ikastetxeek, zentro teknologikoek eta unibertsitateek osatu zuten sare hori.

Fase honetan, sarea sendotzeko garrantzizkoak diren gaiak jorratuko genituzke. Adibidez:

- **Xedea**, lankidetzaz sarearen izateko arrazoia zehazteko eta Debabarrenaren posizionamendua ezartzeko, eskualdean robotika eta automatizazioa sustatzeko erronkari dagokionez.
- **Arrakastarako balio edo faktore garrantzitsuak**, lankidetzaz sarearen filosofia zehazteko; esate baterako, berrikuntza irekiarekiko konpromisoa, lurralde-kohesioa, beste ekimen batzuekiko txertaketa, merkatuari begirako ikuspegia, eta sareko kideek proposatzen dituzten guztiak.
- **Lehentasuneko helburu estrategikoen inguruko adostasuna**, xedearen eta balioen oinarri izan daitezen, eta sarean garatu edo bultzatu beharreko lan-arlo eta proiektu nagusiak zehazteko.

Gainera, Debabarrenean robotika eta automatizazioa sustatzeko ibilbide-orria egingo dugu. Lehenik eta behin, lan hauek ezarri ditugu:

- o Sustatu beharreko ardatz eta lerro estrategiko espezifikoak lehenestea sarearen bidez.
- o Eskualdean ezartzeko proiektu espezifikoak sortzea, lehenetsitako lerro estrategikoetan oinarrituta, betiere, denbora eta eskura dauden baliabideak kontuan hartuta.
- o Proiektu bakoitzerako eragile sustatzaileak edo babesleak eta laguntzaileak lortzea: Debegesa, eskualdeko enpresak, prestakuntza-zentroak, erakundeak, ikastetxeak, zentro teknologikoak...

Ildo horretan, bulego tekniko bat sortu beharko da, Debabarrenean robotika eta automatizazioa sustatzeko plana ezartzeko eta haren jarraipena egiteko. Bulegoak funtzio hauek izango ditu:

- Proiektu bakoitza planifikatzea eta koordinatzea.
- Proiektu bakoitza ezartzea, kontrolatzea eta haren jarraipena egitea:
 - Robotikaren eta automatizazioaren esparruan proiektuak garatzea:
 - Bazkideak eta proiektuen sustatzaileak identifikatzea.
 - Teknikaren, zientziaren eta prestakuntzaren arloko garapena.
 - Sentsibilizazioa.
 - Proiektuen ezarpena koordinatzea.
 - Proiektu bakoitzaren dokumentazio teknikoa sortzea.
 - Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Proiektuaren berri ematea.

Urtearen amaieran, Debabarrenean robotika eta automatizazioa sustatzeko planaren emaitzak ebaluatuko dira.

Aurrekontua: 45.000,00 €

Finantzaketa-plana: Kudeaketa-plana: 1.800,00 €; eta kanpoko baliabideak: 43.200,00 €

B. DEBABARRENEKO ETE-AK 4.0 INDUSTRIA-EREDURA HURBILTZEA.

Gainera, 4.0 industriaren esparruan, teknologia horiek enpresetan ezartzen laguntzeko jarduketak egiten jarraituko dugu. Hain zuzen ere, Gipuzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin egingo dugu, haren eta tokiko garapen-agentzien arteko lankidetzeta-programaren bidez, Gipuzkoako ETEak 4.0 industria-eredura hurbiltzeko. Bizkaian, ordea, baliabide propio batekin egingo dugu.

- Deskribapena: Industriako ETE-en lehiakortasuna hobetuz eta 4.0 industria-eredura hurbil daitezen sustatuz lurraldea garatzen laguntzeko programa.
- Helburua: Parte hartzen duten enpresak fabrikazio aurreratuko eta 4.0 industriako eredura hurbiltzea, banan-banako ibilbideak zehaztuz eta haien jarraipena eginez, teknologia horiek ezarrita ETE-ek lehiakortasun-hobekuntzak egiteko aukera izan dezaten.
- Ekintzak:
 - Enpresak hobetzeko prozesuaren garapena eta haren jarraipena.

Aurrekontua: 20.000,00 € (Gipuzkoako Foru Aldundia)

1.2.2. DEBABARRENA INDUSTRIA-LURRALDEA: ENPRESA ERAGILEAK ERAKARTZEA, DEBABARRENEAN (PROTOTIPOAK PROBATZEKO GUNEA) KOKA DAITEZEN.

BASQUE PRECISION TECHNOLOGY DISTRICT.

2018an, gure eskualdearen posizionamenduaren kontzeptualizazio-fasea egin da, eta identitate hori adierazten duten marka eta logoa zehaztu: BASQUE PRECISION TECHNOLOGY DISTRICT



Deskribapena: Posizionamendu-estrategia eta komunikazio-plana martxan jartzea, marka ahalik eta ondoen zabaltzeko, eskualdean zein eskualdetik kanpo.

Helburua: Debabarrena enpresentzat lurralde erakargarri gisa kokatzea, eskualdearen indarrak balioetsiko dituzten komunikazio-ekintzen bidez. Hona hemen indarrok, besteak beste: industria-lurzorua, zentro logistikoak eta lanbide-heziketako ikastetxeak.

Ekintzak:

- Debabarreneko enpresa guztietan zabaltzea.
- Eskualdetik kanpo zabaltzea.

Aurrekontua: 20.000,00 €

Finantzaketa-plana: Kudeaketa-plana: 10.000,00 €; eta kanpoko baliabideak: 10.000,00 € (Eusko Jaurlaritzari eta/edo foru-aldundiei eskatuko zaio)

Ekimen horren ekintza-plana *Debabarreneko 2018-2021 aldirako Industria Lehiakortasunerako Planean* gauzatuko da.

1.2.3. DEBABARRENEKO ENPRESA OSAGARRIEI LAGUNTZEKO PLAN INTEGRALA. ARRETA MERKATUAN IPINTZEA.

INDUSTRIA-ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK.

2019an, laguntzen eta diru-laguntzen berri emateko zerbitzua eskaintzen jarraituko dugu. Zerbitzuaren helburua Debabarreneko enpresei laguntzei eta diru-laguntzei buruzko informazioa ematea da, inbertitzeko eta lehiakortasuna hobetzeko proiektuak aurrera eramateko zer aukera dituzten jakin dezaten. Deialdi bat ateratzen den bakoitzean,

mezu labur bat bidaltzen diegu, diru-laguntzaren alderdi nagusiak azaltzeko. Ondoren, eskatzen duten enpresei dekretuaren laburpen-txostena bidaltzen diegu.

Gainera, enpresentzat interesgarriak diren jardunaldiak eskaintzen jarraituko dugu, OSTIRALAK DEBEGESAN egitasmoaren bidez. 2019an, gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, 12 jardunaldi programatuko ditugu. Beti bezala, laburrak eta praktikoak izango dira, eta enpresen lehiakortasunerako funtsezkoak diren gaiak jorraituko dituzte.

2019ko jardunaldien bidez, enpresei erronkak –batik bat, digitalizazioa, 4.0 industria eta tresna digital berriak– gainditzeko laguntzea da helburua. Horretarako, ezinbestekoa da Bic Gipuzkoa Berrilanean Ikasgela Digitalarekin lankidetzan aritzea.

Enpresentzako marketin- eta komunikazio-tresnei dagokienez, haiek eskaintzen eta eguneratzen jarraituko dugu. Hain zuzen:

- Debabarreko enpresen informazio geografikoko sistema, GEISen sartuko dena, Gipuzkoa osoko sistema batean, alegia.
- Debabarreko enpresen industria-gida: http://www.debegesa.eus/eu/enpresak/enpresen-gida?set_language=eu
- Barne-kudeaketako aplikazioa, jasotako informazioa behar bezala prozesatzeko.

Debegesaren industria-gidan, 508 enpresaren erregistroak daude, eta horretan oinarritzen dira baliabide horiek.

Bestalde, azken urteetan, eta batez ere enpresarik txikienetan, belaunaldi-txandaketa da erronkarik handienetako bat. Askotan, laguntza integralik ezaren ondorioz, enpresa bideragarriek itxi behar izaten dute, eta lanpostu asko galtzen dira. Egoera hori arintze aldera, enpresei belaunaldi-txandaketako prozesuetan laguntzen jarraituko dugu.

Hain zuzen ere, bi aldeei lagunduko diegu; alde batetik, negozioa utzi nahi duen pertsonari, eta, bestetik, negozio horri segida eman nahi dion pertsonari.

1.2.4. UNIBERTSITATEAK ENPRESEI EZAGUTZA TRANSFERITZEKO EKOSISTEMA BAT SORTZEA.

2019an, unibertsitateekin lankidetzaren sare bat sortzeko erronka dugu, haien ezagutza enpresen esku egon dadin, enpresen profila edozein dela ere.

Deskribapena: Euskadiko unibertsitateekin harreman egonkorra ezartzea, haien ezagutza eta prestakuntza-eskaintza Debabarreneko pertsonen eta enpresen esku egon daitezkeen.

Helburua: Unibertsitateen ezagutza Debabarreneko enpresetara hurbiltzea. EHU, MU eta Nafarroako Unibertsitatea (batik bat, Ingeniaritza Eskola. Tecnun).

Ekintzak:

- Egun dauden lankidetzaren hitzarmenak berrikustea eta hobetzea.
- Elkarrekin bideratu daitezkeen jarduketaren lerroak zehaztea.

1.2.5. STEAM bokazioak sustatzea.

GAZTEROBOTIKA.

2017an Gazte Robotika ekimena martxan ipini zenetik, Debabarreneko zortzi udalerrietako 450 ikasle inguruk parte hartu dute udalerririk horietako udal bultzatutako ekintzetan. Adierazi behar da proiektuak neska gehiagok parte hartzea lortzeko ahalegin handia egiten duela; oraindik ere, neska gutxi hartzen dute parte, eta, hortaz, epe laburreko erronkatzat hartzen da.

Orain arte, bi edizio egin dira (Eibar eta Ermua), eta 2019an, hirugarrena egitea aurreikusten dugu, seguruenik Elgoibarren.

Helburua: Debabarreneko 8 eta 14 urte bitarteko gazteen artean robotikarako eta programaziorako bokazioak sustatzea.

Ekintzak:

- Robotikari eta programaziorari buruzko udako tailerrak. Sentsibilizazio-tailerrak, 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat.
- Euskadiko Eskolako Robotika Txapelketa. Aurten, hirugarrenez egingo da. Talde-lanean erronkei aurre egin nahi dieten neska-mutil guztiak hartu ahal izango dute. Aurtengo erronka parte-hartzea handitzea; Debabarreneko zein eskualdetik kanpoko pertsona gehiagok parte hartzea.

Aurrekontua: 21.000,00 € Kudeaketa-plana: 3.000,00 €; eta kanpoko baliabideak: 18.000,00

(*) tailerren kostua udalerririk bakoitzak hartzen du bere gain, bere aurrekontuan

Finantzaketa: Barne-langileak: 5.000,00. Kanpo-langileak: 16.000,00

1.2.6. DEBABARRENEKO LEHIAKORTASUNA GARATZEKO ESTRATEGIA ZEHAZTEA.

Garapen lehiakorreko strategiaren xehetasunak Debabarreneko 2018-2021 aldirako Lehiakortasun Planean jasoko dira. Industria-lurzoruaren eta zuntz optikoaren esparruan garatu beharreko ekintza espezifikoak 4. LEan xehatuko dira.

A. ENPRESA-EKIMEN BERRIEN INKUBAZIO-GUNEAK

Estrategia hau garatuko bada, funtsezkoa da baliabide egokiak izatea; besteak beste, enpresa-ekimen berrien inkubazio-guneak. Debegesan, eskualdean inkubazio-guneak dituzten udal guztiekin aritzen gara elkarlanean. Ildo horretan, informazioa ematen diegu enpresa berriak sortzeko gure laguntza-zerbitzuetara hurbiltzen diren pertsoneri. Hain zuzen, Ermuan (Izarra Centre) eta Eibarren (Eibargune) inkubaziorako dauden guneei buruzko informazioa ematen diegu ekintzaileei. Gainera, Eibarko Udaleko Eibargune inkubagailua kudeatzen dugu.

B. PROIEKTU OSAGARRIAK

Aurreko ataletik ondorioztatzen denez, argi dago Debegesak industria-enpresen sarearen alde egiten duela.

Eta, gainera, azpisektoreetan edo aukera-nitxoetan jarduera ekonomikoa sustatzeko ere lan egiten dugu. Hori dela eta, 2019an, honako haueetan balio erantsiko jarduera ekonomikoa sortzeko jardungo dugu.

a) Nekazaritzako elikagaien sektorea – Gure market.

Deskribapena: Debabarrena (Debegesa), Oarsoaldea (Oarsoaldea), Tolosaldea (Tolosa Aldea Garatzen) eta Beterri Buruntza eskualdeetako agentzien arteko ekimena.

Helburua: Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresei laguntzea.

Ekintzak:

- o Sarbide-zerbitzuak enpresa guztientzat.
- o Hazkunde-plataformak.

Aurrekontua: 19.500,00 €

Finantzaketa: Kudeaketa-plana: 5.000,00 €; Kanpoko baliabidea: 14.500,00 €

b) Biztanleriaren zahartzearekin lotutako negozio-aukerak.

65 urtetik gorako pertsonen eta 55 urtetik gorakoen ehunekoa handia da. Hori dela eta, biztanleriaren sektore horren beharren eta eskarien inguruko merkatu berria goraka ari da. Gainera, askotariko sektoreek jarduten dute merkatu horretan, Gipuzkoako lurralde historikoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa zahartzearen erronkaren aurrean izeneko estrategia abiarazi du: Adinberri. Estrategia horrek aukera aparta ematen du Debabarrenak posizionamendua hartzeko, sektoreen arteko lankidetzaren sareak ezartzeko eta zahartzearen arloan negozio-aukerak identifikatzeko, eskualdeko sustapen ekonomikoari begira.

Zahartzearen gaia gure enpresa- eta industria-ehuna dibertsifikatzeko bektorea izan daiteke, eta horretan oinarritzen da jarduketa hau. Debabarrenean, martxan jarri nahi dugun prozesutik eratorritako produktuak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzeko behar adina gaitasun ditugu, teknikoak zein produkzioak.

Helburua: eskualdeko lankidetzaren garatzea, Debabarreneko zahartze aktiboaren eta osasungarriaren ekosistemaren elementu eragile gisa, eskualdean zahartze osasungarriarekin lotutako enpresa-aukerak identifikatzeko.

Ekintzak:

- Eragileen mapa identifikatzea. Eskualdeko eragile nagusien konpromisoa lortzea.
- Lankidetzaren sarea:
 - Lankidetzaren sarea helburuak, xedea eta garapen-ibilbideak zehaztea.
 - Lantaldeak sortzea. Sektoreen arteko hibridazioa bideratzea, aukeren eta erronken arabera zehaztutako ibilbideen garapena errazten dute lantaldeak sortuz.
 - Elkarri jardunbideen berri ematea.
- Ekintza-plana:
 - Honako hauekin bat egitea:
 - Adinberri ekimena, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeak zahartzearen inguruan dituen gaitasunak handitzeko sustatua.
 - Zahartze aktiboko euskal estrategia.
 - European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing (EIP AHA) delakoaren inguruan hartutako neurriak eta garatutako jardunbide onak.
 - Ekintza-planaren ibilbide-orria.

Aurrekontua: 37.000,00 € Kudeaketa-plana: 2.000,00 €; eta kanpoko baliabidea: 35.000,00 €

Finantzaketa: Barne-langileak: 19.000,00 € Kanpoko baliabidea: 18.000,0 €

1.2.7. PERTSONEN PRESTAKUNTZA.

A. DEBABARRENEKO UNIBERTSITATE-ESKOLA FINKATZEA (EIBARKO ETA ELGOIBARKO ZENTROETAN), GRADUONDOAK ESKAINIZ.

2019an zehar, unibertsitate-eskolarekin elkarlanean jardungo dugu master graduoko prestakuntza-eskaintza ezarri ahal izateko, gure enpresek eskatzen dituzten profil teknikoekin lotua, hain zuzen. Horri esker, egungo unibertsitate-graduoko prestakuntza-eskaintza indartuko dugu.

B. DEBABARRENA TALENT: ESKUALDEKO TALENTUA ATXIKITZEA (ETA, HALA BADA, ERAKARTZEA).

Eibarko Udalak Debegesaren bidez bultzatutako proiektua, eskualde-mailako. Proiektu horretan, karrera profesionala atzerrian garatzen ari diren pertsonak erakartzeko ekintza zehatzak jarriko dira martxan. Balio erantsi handiko profilak erakarri nahi dira.

Helburua: Enpresei balio erantsi handiko profilak bilatzen laguntzea. Profil espezifikoak dituzten pertsonak erakartzeko eta gure enpresen premiak betetzeko estrategia bat eta tresnak ezartzea.

C. BOKAZIO TEKNIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SUSPERTZEN ARI DIREN ETA ERAKARRI NAHI DIREN SEKTOREETARA (ROBOTIKA, AUTOMATIKA ETA INDUSTRIA-ZIBERSEGURTASUNA) BIDERATZEA.

Debabarreneko gazteen artean zientziarako eta teknologiarako bokazioak sustatzeko proiektua. Ahalegin berezia egingo da ekimen horretan neska gehiagok parte har dezaten.

Helburua: Alde batetik, kalitatezko enplegua sustatzea, eta, beste batetik, enpresei profil teknikoko pertsonak aurkitzen laguntzea, euren proiektuak gauzatzeko aukera izan dezaten. Gainera, sarean lan egiteko eredu bat sortzea, lurraldeko beste eskualde batzuek har dezaketena.

Ekintzak:

- Debabarreneko STEAM bokazioak sustatzeko estrategia propioa zehaztea.
- Lankidetzaren sare bat sortzea:
 - Udal-teknikarien lantaldea sortzea eta dinamizatzea.
 - Ikastetxeen lantaldea sortzea eta dinamizatzea.
 - Enpresen lantaldea sortzea eta dinamizatzea.
 - Gazteek zientziarako eta teknologiarako bokazioekiko zer pertzepzio duten aztertzea.
 - Zabaltze-plana zehaztea.

Aurrekontua eta finantzaketa: 40.135,00 € Barne-langileak: 15.000,00 €; eta kanpoko baliabidea: 25.135,00 €

1.3. DEBABARRENEAN KALITATEZKO ENPLEGUA ETA AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA

Debegesak, 1985ean sortu zenetik, ibilbide luzea egin du enpleguaren eremuan.

Esparru horretan, Debegesaren **xedea** eskualdean enplegu-politika aktiboak indartzea eta sustatzea da:

- Hausnarketa bultzatzen du eta, horrez gain, eskualdeko enplegu-estrategiak zehazten ditu, eskualdearen helburu estrategikoak aintzat hartuta.
- Esparru horretan lan egiten duten eragile eta erakunde guztiekin lankidetzan aritzea, denen ahaleginak koordinatuz, eta eskualderako baliabideak erakarriz eta sortuz.
- Langabezian dagoen biztanleriaren enplegarritasuna hobetzeko proiektuak sustatzea.
- Enpleguaren egoerari buruzko azterketak egitea.

Langabeziari dagokionez, azpimarratu behar da eskualdean, susperraldi ekonomikoaren ondorioz langabezia-tasak txikitu badira ere, disfuntzio txikiak daudela oraindik ere. Hona hemen zenbait adibide: genero-arrakala dago (emakumeen langabezia-tasa portzentajezko 5 puntu handiagoa da); gutxi gorabehera, langabezian dauden pertsonen erdiak 45 urtez gorakoak dira; eta derrigorrezko ikasketak soilik dituzten pertsonak edo lana zerbitzu-sektorean bilatzen ari diren pertsonak dute langabezia-tasarik handiena.


Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da gizarteratze- eta laneratze-arloan zenbait erronkari edo premiari aurre egiteko estrategiak sortzea.

- Hauek dira joera horietako batzuk:
- Iraupen luzeko langabeen kopurua handitzea.
- Laneko baldintzak eta ibilbideak larritzeko prozesuak areagotu egin dira.
- Oraindik ere, generoa pobretze- eta bazterketa-prozesuetako faktore erabakigarrietako bat da.
- Immigranteen kasuan, langabeziaren, benetako pobreziaren eta mantentze-pobreziaren tasak handiagoak dira, laneratzeko arazo bereziak daude, eta familia-errenta txikiagoa da.
- Gizarte-bazterketako eta gizarte-bazterketako arriskuko egoerek euren horretan jarraitzen dute, bereziki **desgaitasuna** duten pertsonen artean.
- Bertako lan-merkatuak maila handiko gaitasunak, kualifikazioa eta espezializazioa eskatzen ditu. Hori dela eta, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak zailago dute lana aurkitzea, orokorrean haien gaitasunak ez baitira nahikoak. Bestalde, enpresek ezin dituzte euren premiak tokiko langileekin ase.
- Automatizazio-prozesuak pixkanaka orokortzen ari dira, eta horrek are gehiago zailduko du gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak lana aurkitzea.

Septiembre de 2018ko iraila

	Langabetuen kopurua Número de personas paradas			Erregistratutako langabezia tasa Índice paro registrado		
	Guztira Total	Gizonezkoak Gizonak	Emakumezkoak Emakumeak	Guztira Total	Gizonezkoak Gizonak	Emakumezkoak Emakumeak
Deba	170	73	97	6,3	5,1	7,6
Eibar	1.651	682	969	12,9	10,3	15,8
Elgoibar	515	189	326	9,4	6,4	12,8
Mutriku	203	92	111	7,5	6,5	8,7
Soraluze	259	122	137	13,9	12,0	16,2
Mendaro	74	25	49	7,4	4,5	10,9
Ermua	754	290	464	9,8	7,0	13,1
Mallabia	38	11	27	6,5	3,7	9,6
DEBABARRENA	3.664	1.484	2.180	10,5	8,1	13,3

Iturria / Fuente: LANBIDE



Hori dela eta, Debegasak 2019. urterako beharrezko ekintzak bultzatzea proposatzen du, lan-merkatutik urrunen dauden langabeen edo ezegonkortasun-egoeran harrapatuta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bideratzeko.

1.3.1. LAN IBILBIDEAK DISEINATZEA TITULAZIO-MAILA TXIKIA DUTEN, LAN-MERKATUTIK KANPO DAUDEN ETA BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN KOLEKTIBOENTZAT.

A. PRESTAKUNTZA-MAHAIAREN DINAMIZAZIOA (ESKUALDEKO ENPLEGU-MAHAIA).

PRESTAKUNTZA-MAHAIK eskualdean enpleguaren eta prestakuntzaren arloetan zeresanik duten eragile guztiak biltzen ditu. Mahaiak helburu hauek ditu:

- Eskualdeko langabeziaren egoera eta prestakuntzaren eskaintza zein eskaria aztertzea.
- Informazioa parte hartzeko eta proiektuak koordinatzeko sare bat sortzea.
- Enplegu- eta prestakuntza-proiektuetarako proposamenak biltzea.

Mahai horretan sortu da **Debabarreneko gizarteratze- eta laneratze-sarea** sortzeko proiektua. Horrenbestez, Prestakuntza Mahaia sare horretan sartuko da, hartan parte hartzen duten eragile guztiak **sarean** ere baitaude.

B. DEBABARRENEKO GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-SAREA.

2018an zehar, eskualdeko eragile sozial, erakunde eta administrazio publiko guztiekin elkarlanean jardun dugu, baita Debagoieneko eskualdearekin ere, edo **gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko eragileen sare** bat martxan jartzeko asmoz.

Baterako lan-esparru bat sortu nahi da, eta, aldi berean, elkarriketa- eta lankidetzatresna egonkorra eta eraginkorra.

Tokiko eta diziplina anitzeko sarea da, eta, elkarrekiko informaziotik eta kontsultatik harago joan nahi du. Gizarteratze eta laneratzearen arloko beharrei buruzko elkarriketa-eremu gisa sortu da, bai eta, batez ere, estali gabeko, behar bezala bete gabeko edo zailtasun gehiagoko premiei erantzuteko koordinazioa eta lankidetzatresna sustatzeko tresna pribilegiatu bat ere.

2019ko helburuak:

- a) **Lantaldeak** sortzea, **proiektu jakin bat edo bi garatzeko.**
- b) **Tresna edo aplikazio informatiko** bat diseinatzea eta martxan jartzea, eragile guztiei eskualdean arlo horretan dauden baliabideei buruzko informazioa emateko.
- c) **Eragileen arteko eskaintzak eta eskariak sareko koordinatzaile teknikoaren bidez bideratzea**, egiten diren balorazioen arabera haren funtzionamendua hobetzeko.
- d) Sarearen eta egindako lanaren **ebaluazio-sistema** diseinatzea eta garatzea.

Aurrekontua: 55.000,00 €

Finantzaketa: 20.000,00 €, Gipuzkoako Foru Aldundia. 30.000,00 €, Enplegu Sailari eskatuak. 5.000,00 €, Kudeaketa Plana.

C. LANBIDE-HEZIKETAREN ETA ENPLEGUAREN ESQUALDEKO AZOKA. #ABIAN

Helburua: Debabarreneko zortzi udalek (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) Debegesaren bidez bideratzen dituzten ekimenen esparruan, eskualdeko langabezia-egoerari erantzun nahi dio, eta eskualdeko ekonomia bultzatzeko eta enplegua sortzeko proposamenak egin, eta lanbide-heziketa sustatu, enpresek eskatzen duten prestakuntza eman dezake eta.

2019ko lehen hiruhilekoan garatuko da.

Aurrekontua: 35.000,00 €

Finantzaketa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu Saila, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta enpresak.

D. DEBABARRENEAN GIZARATERATZE-ENPRESAK SORTZEKO PROIEKTUA.

Helburua: Prozesuak eta/edo zerbitzuak azpikontratatzeko premiak identifikatzea, gizarateratze-enpresek bete ditzaketanak, batik bat industria-sektorean, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeek kalitatezko enplegua lortzeko aukera izan dezaten, gizarateratze- eta laneratze-ibilbide batean.

Jarduerak:

1. Testuinguruan jartzea: Eskualdeko enpresa- eta produkzio-egitura.
2. Gizarateratze-enpresei buruzko ezagutza, sentsibilizazioa eta informazioa.
3. Negozio-idea: Industria-enpresen azpikontratazio-premiak aztertzea, gizarateratze-enpresa bat sortzeko behar besteko jarduera ekonomiko bideragarria egon daitekeen ala ez jakiteko.
4. Enpresa-plana: Behin egokia den eta aukerak izan dituen jarduera aukeratu ostean, enpresa-plan bat egingo da.
5. Erakunde sustatzaileak bilatzea, gizarateratze-enpresa martxan jartzeko.
6. Ibilbide-orria diseinatzea, gizarateratze-enpresa martxan jartzeko. Jarduerari hasiera emateko beharrezko pausoak zehaztea.

Aurrekontua: 20.000,00 €

Finantzaketa: 20.000,00 €, Gipuzkoako Foru Aldundia.

E. ORIENTAZIO- ETA LAGUNTZA-IBILBIDEAK, IRAUPEN LUZEKO LANGABEAK LANERATZEKO.

Proiektua Oarsoaldeko, Urola Garaiko eta Bidasoako garapen-agentziekin batera sortutako ABEE baten bidez garatuko da.

Helburua: Iraupen luzeko 48 langaberi laguntzeko ekintzak garatzea, gutxienez haien erdiek lana lor dezaten.

Aurrekontua: 16.800,00 € + - laneratzeagatiko plusa.

Finantzaketa: LANBIDE (Laneratzearen emaitzekin lotua)

F. DEBEGESA LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA-ZENTRO GISA HOMOLOGATZEA.

Lanbidek Debegesa homologatzeko beharrezkoa den prozesua abiaraziko da, oinarritzko eta zeharkako gaitasunak lortzeko prestakuntza eman ahal dezan.

G. HASIERAKO LANBIDE-HEZIKETAKO ZENTROA, BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN HELDUENTZAT.

Pertsona horiek prestakuntza-espezialitateetan (eskualdeko lanbide-heziketako zentroek ematen ez dituztenak, batik bat zerbitzuen, eraikuntzaren, mantentze-lanen eta ostalaritzaren esparruetan) dituzten premiei erantzungo dien zentro bat sortzeko urratsak egitea.

H. ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK KUDEATZEA.

Udalek Debegesa “baliabide propio” izendatzen duten heinean, Lanbidek finantzatutako eskualdeko enplegu-planaren kudeaketan eta administrazioan parte hartu ahal izango da.

I. ENPLEGU-ZERBITZUA.

Zerbitzu pertsonalizatua ematen jarraituko dugu, bai enplegua aurkitzeko edo hobetzeko laguntza eskatzen duten pertsonari, bai euren lantegietan lan egiteko pertsonak bilatzen dituzten enpresei. Horretarako, zerbitzu hauek izango ditugu:

- **Lanbideren zentro kolaboratzailearen orientazioa** (Debegesan kokatutako kanpo-erakunde batekin lankidetzan).
- **Bitartekaritza – Enplegu-zerbitzua**

Zerbitzua ematen die enplegua eskaini eta merkatuan profil zehatzak bilatzen dituzten enpresei, eta enplegua bilatzen ari diren pertsonari.

- LANBIDEREen zentro kolaboratzailea.
- Enplegu-agentzia. Zk.: 1600000116.

1.3.2. 45 URTEZ GORAKO PERTSONEK LANA AURKITZEN LAGUNTZEA, BATEZ ERE MANUFATURA-SEKTOREAN ESPERIENTZIA DUTENEI.

Proiektu horiek garatuko dira, baldin eta udalek interesa badute eta euren aurrekontuetan kargura eskatzen badute, edo finantzaketa-aukeraren bat sortzen bada. Ildo horretan, udalek Debegesa baliabide propio izendatzea funtsezkoa izango da horrelako proiektuak kudeatzeko.

45 URTEZ GORAKO LANGABEEI LAGUNTZA ETA ORIENTAZIOA EMATEKO PROIEKTUAK: ESPERIENTZIA +45.

Helburu nagusia pertsona horien enplegarritasuna handitzea da, eta haiei enplegua bilatzen laguntzea.

Gainera:

- Gaitasun pertsonalak (komunikazioa, enpatia, erantzukizuna...) eta gaitasun profesionalak (talde-lana, gatazken ebazpena...) identifikatzea.
- Lanbide- eta bizi-ibilbidea aztertzea, eta helburu profesionalak ezartzea.
- Norberaren zein besteren konturako enplegua bilatzeko baliabideak ezartzea eta bultzatzea.
- Enplegua bilatzeko ekintzailatza eta aktibazioa sustatzea.
- 2.0 enplegua bilatzeko trebetasun digitalak garatzea.

Jarduera horrek 14.220 €-ko aurrekontu espezifikoa du, eta Eibarko Udalak finantzatuko du.

1.3.3. LANGABEZIAN DAUDEN EMAKUMEEN LANBIDE-PRESTAKUNTZA HOBETZEA.

Proiektu horiek garatuko dira, baldin eta udalek interesa badute eta euren aurrekontuetan kargura eskatzen badute, edo finantzaketa-aukeraren bat sortzen bada. Ildo horretan, udalek Debegesa baliabide propio izendatzea funtsezkoa izango da horrelako proiektuak kudeatzeko.

ENPLEGUA LORTZEKO EKINTZAILTZA- ETA LAGUNTZA-PROGRAMA, BAZTERKETAKO EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEENTZAT.

Helburua: Emakumeen sektore bati eragiten dioten zaugarritasuneko eta gizarte-bazterketako egoeretan hobekuntza sustatzea. Izan ere, emakumeek, hainbat zailtasun (prestakuntzarik, trebetasun pertsonal eta sozialik, eta gizarte-sarerik eza, besteak beste) izateaz gain, emakume izate hutsaren ondoriozko zailtasunei egin behar diete aurre: genero-indarkeriari, guraso bakarreko familien zailtasunei, familia-zaintzeko erantzukizunei, ahalduntze-ezari, etab. Hori hobetuko bada, beharrezkoa da lan-merkatuarekiko duten egoera hobetzea; hots, haien enplegarritasuna handitzea, enplegua lor dezaten.

○ EIBARKO EMAKUMEAK LAN IBILBIDEAK ERAIKITZEN

Emakumeak, ahalduntzean eta gizarteratzean oinarritutako lan-ibilbideak eraikitzen, euren enplegarritasuna hobetzeko:

Langabezian dauden 15-20 emakumeren taldea. 2018ko urrian hasitako eta 2019ko otsailean amaituko den proiektua. 14.250 euroko aurrekontu espezifiko du, Eibarko Udalak osorik finantzatua.

○ EIBARKO EMAKUMEAK LAN IBILBIDEAK ERAIKITZEN

Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile diren 10-15 emakumeren talde batentzat diseinaturik. Gutxi gorabehera, 14.520 euroko aurrekontua izango du. Finantzaketa itxi gabe dago oraindik.

1.3.4. TITULAZIOA DUTEN GAZTEAK LAN-MERKATURA HURBILTZEA.

HAZILAN: KUALIFIKAZIOA DUTEN ETA LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEAK.

HAZILAN proiektuak 25 eta 44 urte bitarteko langabeentzat diseinaturik zenbait ekintzaren ibilbide oso bat osatzen du.

Pertsona horiek kualifikazioa dute (goi-mailako unibertsitate-heziketa edo lanbide-heziketa), langabezian daude, eta, gehienetan, ez dute kontaktu handirik izan lan-errealitatearekin. HAZILAN proiektuak honako hau du funtsezko elementuetako bat: enpresen benetako aukerak eta pertsonak gaitasun-profilak identifikatzen ditu, benetako gizarteratze-aukerak lantze aldera.

Helburua: gutxienez bi tailer egitea, bakoitza 12-15 pertsonarentzat. Zehar-gaitasunei buruzko prestakuntza + Prestakuntza espezifiko (proiektuen kudeaketa) + praktikak enpresetan.

Aurrekontua: 60.000,00 €,

Finantzaketa: % 50, Europako Gizarte Funtsa.

1.3.5. ENPRESAK SORTZEKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUA

Zerbitzu hauek ematen ditu:

- Enpresak sortzeko tailerrak. Astean behingo tailerrak (astearteetan Debegesan), ekintzailtza-pausoei eta Debegesaren zerbitzuei buruzko informazioa emateko.
- Aholkularitza indibidualizatua, negozio edo enpresa bati hasiera eman nahi dioten pertsonentzat.
- Aurreekintzailtza-prozesuak, hasiera-hasierako faseetan, funtsezko gaiak lantzeko: komunikazioa, bezeroak erakartzeko moduak, inbertsioa, etab.
- Negozioak edo enpresak martxan jartzeko prozesuak: forma juridikoari buruzko analisiak, izapideak, finantzaketa, kontrol ekonomikoa...
- Laguntzei eta diru-laguntzei buruzko informazioa emateko zerbitzua.
- Debabarrena EKINEAN. Taldeko prestakuntza eta aholkularitza eskualdeko udalerrietan, langabezian dauden pertsonentzat, enpresa-idea berriak sustatzeko eta udalerrietan garatzen laguntzeko. Lau orduko sei saioko tailerrak, urtean behin edo bitan, interesa duten udalerrietan.

2018an, zerbitzu horren diseinuari buruzko hausnarketa-prozesu bati eman diogu hasiera, Mondragon Unibertsitateko LEINN-Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduko talde batekin elkarlanean. Zerbitzua pertsona ekintzaileen eta berritzaileen profil baterantz gehiago hurbiltzeko diseinatzea da helburua.

Aurrekontua: 20.000,00 €.

Finantzaketa: 20.000,00 €. Gipuzkoako Foru Aldundia.

1.4. HIRI-BERRITZE IRAUNKOR ETA INTEGRATURANTZ: ESKUALDEKO UDALERRIETAKO HIRI-PAISAIA ETA ESPAZIO HONDATUAK BERRITZEA SUSTATZEA.

1998ko maiatzaren 13an, Debegesa Debabarreneko Hiri Birgaitzerako Elkarte gisa sortu zen, urbanizatutako eta eraikitako ondarearen birgaitzea sustatzeko, bai Birgaitze Integratuko Eremuetan (hirigune historikoak eta eremu degradatuak), bai Debabarreneko gainerako hiri- eta landa-eremuetan, horren ondorioz eskualdeko biztanleen bizi-kalitatea hobetze aldera.

2015eko abenduan, Debabarreneko Hiri Garapen Jasangarri Integralerako Estrategia (EDUSI DEBABARRENA 2020) onartu zen. Estrategia horrek 2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Plana du oinarri, baita haren berrikuspenaren ondorioz sortutako 2018-2022 Ekintza Plana ere.

Besteak beste, lerro estrategiko horrek Debegesaren esparruko proiektuak (**Debabarreneko Hiri Birgaitzerako Elkarte** gisa abiarazitakoak) zein **EDUSI Debabarrena** estrategian martxan jarritakoak hartzen ditu barne.

1.4.1. HIRIGUNEEN KALITATEA HOBETZEA ETA HAIEN DINAMISMOA BULTZATZEA.

A. DEBABARRENEKO AUZO DESFABORATUEN BIRGAITZEA SUSTATZEA.

A.1. TXONTA AUZOAREN (EIBAR) BIRGAITZE INTEGRALA

Helburua: Eibarko Udalarekin lankidetzan, Txonta auzoko udal-jarduera indartzea, beste erakunde batzuekin koordinatutako estrategia globalaren baitan, auzoa birgaitzeko eta leheneratzeko.

Deskribapena: 2019an auzoko bulegoarekin lankidetzan aritzea proposatzen da, hautemandako premiak ikuspuntu jasangarri eta integral batean oinarrituta konpontzeko; alegia, ikuspegi fisikoak (hiri-birgaitzea eta -leheneratzea), ekonomikoa (enpleguaren sustapena eta toki-garapena) eta soziala (gizarteratzea, parte-hartzea eta osasuna).

Ekintzak: Horretarako, auzoko bulegoaren zerbitzua leihatila bakar gisa sendotzea proposatzen da, auzoaren birgaitze integraleko prozesuan auzoko biztanleei laguntzeko, besteak beste enplegua eta merkataritza sustatuz eta dinamizatua. Horretarako, jarduera hauek egingo dira:

- Auzoko biztanleen premien diagnostikoa egitea, gizarteratzeari eta laneratzeari dagokienez, eta neurrirako prestakuntza- eta enplegu-proiektuak diseinatzea eta martxan jartzea.
- Iraupen luzeko langabeei aholkularitza-zerbitzua ematea, haien enplegarritasuna handitzeko.
- Auzoko merkataritza sustatzea eta dinamizatzea.

Aurrekontua eta finantzaketa: Jarduketa horiek martxan jartzeko, behar-beharrezkoa izango da eskumenerako erakundeek konpromisoa hartzea, eta finantzaketa-aukerak eskura izatea.

B. HIROS4ALL – Horizon 2020

2018an zehar, Eusko Jaurlaritzarekin (Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza), Energiaren Euskal Erakundearekin eta tokiko beste bazkide batzuekin batera Horizon 2020 proiektu bat aurkeztu diogu Europar Batasunari: HIROS4ALL. Proiektuaren helburua da etxebizitza-erakin pribatuak birgaitzeko zerbitzu integral eta berritzailea bat garatzea, 2019tik aurrera eta hiru urtean. Eibarko Txonta auzoko bulegoa eta Bilboko Otxarkoaga auzoko bulegoa proposatu dira kasu pilotu gisa.

Aurrekontua eta finantzaketa: 109.864 €, EB-Horizon 2020.

C. INDUSTRIA-ESPARRUAK BIRSORTZEKO POLITIKAK SUSTATU ETA GARATZEA, JARDUERA EKONOMIKOA FINKATZEKO, SORTZEKO ETA ERAKARTZEKO.

Helburua: Azpiegitura Mahaian, azpiegiturak (lurzorua eta pabilioiak) balioesteko eta, beraz, jarduera ekonomikoa finkatzeko, sortzeko eta erakartzeko, honako helburu hauek proposatzen dira, besteak beste:

- Industrialdeak kudeatzea eta leheneratzea.
- Industrialdeetan eta industria-guneetan ahalmen handia (telekomunikazioak) hedatzea.

Deskribapena: 2019an eskualdeko industrialdeen kudeaketa eta leheneratzea sustatzen jarraitzea proposatzen da, baita telekomunikazio-azpiegiturak hobetzea ere, industrialdeetan eta industria-guneetan ahalmen handia hedatuz. Gainera, 2018ko laugarren hiruhilekoan hasitako jarduketek euren horretan jarraituko dute, industrialdeen eta jarduera ekonomikoko eremuen kudeaketa eta leheneratzea hobetzeko.

Ekintzak:

- **Azitain-Erisono eta Matsaria industrialdeak (Eibar)**

2018ko laugarren hiruhilekoan Eibarko Azitain-Erisono eta Matsaria industrialdeetako enpresen artean enpresari-elkarte bat sustatzeko eta dinamizatzeko lan egin ostean, lankidetzak publiko-pribatuak jarraitzea proposatzen da, industrialde horien kudeaketa hobetze aldera, lehendik zehaztutako lehentasuneko jarduketa-eremuen arabera. Bi elkarteak edo haien ordezkari beste elkarte-mota batzuk sortzea proposatzen da.

Aurrekontua eta finantzaketa: 8.800 €. Eibarko Udala.

- **Itziar enpresa-parkea (Deba)**

Itziarko industrialdeko Kontserbaziorako Hirigintza Erakundearekin batera 2018ko hirugarren lauhilekoan, ibilbide-orri bat adostu zuten tokiko erakundeek eta hirigintza-erakundeak. Orain, 2019an zehar, lankidetzak publiko-pribatuak aurrera jarraitzea proposatzen da, eta ibilbide-orri hori dauden lehentasunen arabera martxan jartzea.

Aurrekontua eta finantzaketa: Jarduketa hori martxan jartzeko, behar-beharrezkoa izango da eskumeneko erakundeek konpromisoa hartzea, eta finantzaketa-aukerak eskura izatea.

- **Arriaga industrialdea (Elgoibar)**

2019an zehar, Debegesaren eta Elgoibarko Udalaren arteko lankidetzak bere horretan jarraituko du, Arriaga industrialdea leheneratzeko.

D. SORALUZECO HIRI-BERRITZE IRAUNKOR ETA INTEGRATUA EGITEKO LAGUNTZA BEREZIA.

Helburua: Soraluzeko hiri-garapen iraunkorra eta integratua egiteko laguntza berezia ematea.

Deskribapena: 2019an Soraluzeko Udalarekin elkarlanean jarraitzea proposatzen da, helburu hori betetzeko.

1.4.2. ERAIKITAKO ONDAREAREN BIRGAITZE IRAUNKORRA SUSTATZEA.

A. ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO ZERBITZUA.

Helburua: Partikular eta auzo-elkarte guztiei azaltzea zer alde on dituen haien etxebizitzak eta/edo etxebizitza-eraikinak birgaitzeak, eta arlo horretan zer laguntza ekonomiko dauden. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila (ETXEBIDE), Energiaren Euskal Erakundea, Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak, etab.

Deskribapena: Zerbitzu horrek laguntza ekonomikoei buruzko informazioa eman (leihatila bakarra) eta etxebizitzak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzaren (Etxebide) laguntzen espediente bideratuko du, hala behar izanez gero.

Gainera, birgaitze-obra jakangarrienak sustatzen dira. Ildo horretan, egin beharreko lanaren arabera, Birgaitze Jasangarriko Fitxak ematen ditu, birgaitze-lanak ahalik eta jakangarrienak izateko neurriak har daitezten.

B. ERABILERRIK GABEKO INDUSTRIA-ERAIKIN ETA -LURZORUAK BERRERABILTZEA.

Helburua: Azpiegitura Mahaiari, azpiegiturak (lurzorua eta pabilioiak) balioesteko eta, beraz, jarduera ekonomikoa finkatzeko, sortzeko eta erakartzeko, honako helburu hauek proposatzen dira, besteak beste:

- Lurzoru erabilgarria garatzea eta pabilioi hutsak betetzea.
- Lehen industria-erabilera izandako pabilioiak birgaitzeko beharra aztertzea.

Deskribapena: 2019an zehar, helburu horiek betetzeko jarduketak sustatzen eta dinamizatzen jarraituko du Debegesa. Gainera, 2018ko laugarren hiruhilekoan hasitako jarduketekin jarraituko da; alegia, jarduera ekonomikoko eremuetan leheneratzeko (birgaitze integrala) interesgarriak diren eraikinak eta lokalak balioetsiko dira.

Ekintzak:

- **Eibarko birgaitze-proiektu pilotua**

2018ko laugarren hiruhilekoan, enprekin elkarlanean, Eibarko hiriguneko eraikin batean zeuden enpresak Matsaria industrialdean edota Azitain industrialdean birkokatze proiektu bati hasiera eman zitzaion. Ondoren, eraikin horren birgaitze integrala egin eta balioetsi egingo zen, hartan beste enpresa-proiektu batzuk ezartzeko. 2019an zehar lankidetzak publiko-pribatuak bere horretan jarraitzea proposatzen da, betiere, aurrez zehaztutako lehentasunak aintzat hartuta.

- **Soraluzeko birgaitze-proiektu pilotua**

2019rako, lehenago industria-erabilera izandako eraikin eta/edo lokal bat balioesteko proiektu pilotu bat martxan jartzea proposatzen da.

1.4.3. LURRALDE-OREKA: ESKUALDE-MAILAN KOORDINAZIO HOBEA IZATEN LAGUNDU DEZAKETEN LURRALDE-PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA EKINTZEN GARAPENA BULTZATZEA.

DEBA IBAIA BERRESKURATZEA ETA ESKUALDEKO ARDATZ GISA HARTZEA.

Deskribapena: Deba eta Ego ibaiak berreskuratzeko eta balioesteko programa integrala Debegesak eta Uraren Euskal Agentziak (URA) sinatutako hitzarmenaren esparruan garatu da. Plan estrategiko propositiboa, irekia, parte-hartzailea eta ebolutiboa da.

Ekintzak: Esparru horretan, hau proposatzen da 2019rako:

- URArekin (Uraren Euskal Agentzia) elkarlanean, Deba eta Ego ibaiaren saneamendu integrala bultzatzea, eta haren jarraipena egitea.
- Eibar eta Ermua artean (Zaldibar) Ego ibaiaren eremua leheneratzeko eta ingurumenaren aldetik hobetzeko proiektua bultzatzea eta haren jarraipena egitea, aurreproiektuaren eta aldaketan arabera, Zaldibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (behin-betiko onarpena) sartu ondoren.
- 2019an zehar, behin Deba ibaiaren estuarioaren (Deba eta Mutriku) plan bereziaren aurrerakina amaituta, hasitako prozesuari bultzada emateko beharrezko ekintzak egingo dira.
- 2019an zehar, Deba ibaiaren eta Sasiolatik (Deba) eta Astigarribiatik (Mutriku) Deba eta Mutrikuko udalerrietako estuariorainoko ibaiertzaren paisaiarako ekintza-planean proposatutako jarduketak sustatuko dira.

1.5. DEBABARRENA PRODUKTU ANITZEKOA, LEHIAKORRA ETA URTE GUZTIKO DEN TURISMO-HELMUGA GISA INDARTZEA, ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ARTEKO LANKIDETZARI LEHENTASUNA EMANDA

Debabarreneko Turismo Plan Estrategikoa 2016an onartu zen. Hartan, turismo-arloko ia proiektu eta jarduketak guztiak jasotzen dira, eta, ondorioztatzen denez, Debabarreneko eskualdeak hiru erronka ditu nagusiki:

1. Lankidetzaren publiko-privatuko eredu baten alde egitea.
2. Deba eta Mutriku udalerriek Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkean kokapen sendoagoa izatea, euren identitateekin eta diskurtsoekin.
3. Turismo-arloko produktuak eta esperientziak sortzea, kostaldetik barrualderako turismo-fluxua handitzeko.

Debabarrenak kalitatezko turismoaren alde egiten du, kontuan hartuta turismo horretan helmuga eta turismo-azpiegitura oso garrantzitsuak direla. Hori dela eta, lan-ildo nagusiek bi esparru horretan jartzen dute arreta.

1.5.1. EZAGUTZAN ETA PARTE-HARTZE PUBLIKO ETA PRIBATUAN OINARRITUTAKO TURISMO-KUDEAKETA SUSTATZEA, BATERAKO LAN-FORMULAK SORTUZ.

PLANAREN GOBERNANTZA PLANA.

Eskualdeko turismo-erronka nagusietako bat lankidetzaren sustatzea da; alde batetik, sektore publikoko eta sektore pribatuko eragileen artean, eta, beste batetik, enpresen beraien artean. Hori dela eta, BASQUETOUREk (Turismoaren Euskal Agentzia) Euskal Turismoaren Lurralde Kudeaketaren Eredua sustatzen du. Lurraldean, turismo-lankidetzako erakundeek (DEBEGESA) ezartzen dute, eskualde-mailan.

2019an, mahai horiek –besteak beste, Eragile Publikoen Mahaia, azpisektoreen (gastronomia, etab.) mahaiek eta Turismo Mahaiek– funtzionatzen jarraituko dute.

A. EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEKO ZUZENDARITZA-BATZORDEAN PARTE HARTZEA.

Debegesak, GEOGARAPENeko (Euskal Kostaldeko Geoparkearen kudeaketarako Elkarte) hiru udal sortzaileek, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute Geoparkeko zuzendaritza-batzordea. 2019an, Debako eta Mutriku udalerriek Euskal Kostaldeko Geoparkean duten posizionamendua hobetzen jarraituko da.

o Turismo Mahaian parte hartzea.

Gipuzkoako Turismo Mahaian, Gipuzkoako bederatzi eskualdeetako eta Donostiako teknikari kudeatzaileak daude, GFako Turismo Departamentuaren tutoretzaren eta koordinazioaren pean. Lan-mahai hori urtean lau edo bost aldiz biltzen da. Haren helburuak honako hauek dira, besteak beste: interes orokorreko jarduketak zehaztea, sustapenak batera egitea, Gipuzkoako Turismo Plan Estrategikoa gauzatzea, eta Gipuzkoan turismo-arloko laguntzak eta diru-laguntzak banatzeko irizpideei buruz eztabaidatzea eta iritzia ematea.

Debegesak mahai horretan parte hartzen jarraituko du, eta Debabarreneko turismo-helmugen premien, kezken eta proposamenen berri ematen ere bai.

- **Euskal Kostaldeko Eragile Publikoen Mahaian parte hartzea.**

Euskal Kostaldearen proiektua, BASQUETOUREn gidaritzapean, zenbait lan-mahairen bidez gauzatzen da. Eragile Publikoen Mahaian, Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldeko eskualdeetako teknikariok eta kudeatzaileok biltzen gara, urtean hirutan. Oraingoan ere, baterako proiektuetan lan egitea da helburua. Debegesak lan-mahai horretan parte hartzen eta ekarpenak egiten jarraituko du.

- **Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako beste foro edo lan-mahai batzuetan parte hartzea.**

Finantzaketa: Jarduera horiek udalek 2019ko Kudeaketa Planari egindako ekarpenen bidez finantzatuko dira.

- **Gipuzkoako MICE Batzordean parte hartzea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako foroa da. DEBEGESAK turismo-lankidetzarako erakundeen izenean hartzen du parte.

Laguntzak eta diru-laguntzak.

Turismo Sailaren laguntza espezifikoez gain, beste laguntza batzuk kudeatzen dira arlo horretan, hautemandako premiak eta aukerak aintzat hartuta (Leader, Arrantzatik eratorritako produktuen merkaturatzea, GFAko IKTak, etab.).

1.5.2. ESKUALDEKO TURISMO-ESPARRUA HOBETZEA ETA HAREN BALIABIDEAK BALIOESTEIA, IRAUNKORTASUNARI ETA KALITATEARI DAGOKIENEZ.

ESKUALDEKO HELMUGARI BURUZKO INFORMAZIO- ETA HARRERA-SISTEMA HOBETZEA.

Aurreko urtean bezala, Eibarren turismo-bulego bat eta Debabarreneko eskualdearen barrualdeko udalerrietan produktuak eta zerbitzuak bideratuko da.

1.5.3. BALIABIDEAK HOBETZEA ETA TURISMO-PRODUKTUEN ESKAINTZA GARATZEA.

Debabarrena produktu anitzeko helmuga da. Beraz, eskaria betetzeko produktu-zorro bat eratu beharko da, segmentu eta merkatu guztiak barne hartuko dituen eskaintza lehiakor baten bidez.

Jarraian, 2019rako aurreikusitako lan-ildoak bildu ditugu.

- **NATURA-TURISMOA: EKOTURISMOA ETA TURISMO AKTIBOA.**
- **Geoparkearen Interpretazio Planean identifikatutako bi interesgunean garatzen laguntzea.**

Mutriku eta Euskaldunen Itsasoa. Mutrikuko Udalak egindako gestioari esker, Arrietakua Jauregia irekita dago. Orain, Mutrikuren datozen urteetarako erronka udalerriko baliabideak antolatzea izango da, baita haien zeregina eta haien arteko interakzioa zehaztea ere. Testuinguru horretan, Kofradia Zaharraren (portuak), Bentalekuaren eta

Arkugain egoerak nabarmentzen dira. Nautilusen eta Komentuaren etorkizuneko bideragarritasuna ere kontuan hartu beharko da.

Orobat, eta orain arte egin den bezala, 2019an ere berdel-eguna egiteko laguntza eskatu, eta hura behar bezala kudeatzeko eta justifikatzeko beharrezko lanak egingo dira.

Karsta eta Gizakia proiektua. 2019an, "Deba ibaiaren eta bere ibaiertzaren paisaiarako diagnostikoa eta ekintza plana Sasiola Astigarriako eremutik Deba eta Mutrikuko estuarioraino" dokumentuan jasotako oinezkoentzako ibilbide zirkularrarekin (Sasiolarainokoa) lotutako turismo-produktu bat zehazten lagunduko du Debegesak.

- **Trikuharren Ibilbidearen proiektua finkatzea.**

2019an zehar, eta Soraluzeri proiektuaren titulartasuna (zati ekonomikoa) ematen dion lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, Debegesak beharrezko gestioak egingo ditu LEADERek, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta GFAko Kultura Departamentuak finantzaturako proposamenean jasotako ekintzak martxan ipintzeko. Honako hauek izango dira nagusiak: arkeologia-lanak (Agerreburu eta Frantsebaso), eta hedapen- eta komunikazio-lanak (argibide-etaulak, seinaleak eta balizak egitea eta jartzea; micro site bat sortzea; bisita gidatuen programa bat sortzea; zientzia-dibulgazioko programa bat egitea...).

Proiektua behar bezala garatzen dela bermatzeko, Jarraipen Batzordeak bere horretan jarraituko du. Hartan adostuko dira proiektuari dagozkion erabakiak, eta udal bakoitzeko ordezkari banak, Debegesako ordezkari batek eta Debemeneko ordezkari batek osatuko dute.

B. KULTURA-TURISMOA.

ESKUALDEKO INDUSTRIA-TURISMOAREN ESKAINTZA SUSTATZEA.

2018an, Basquetourrek EAeko Industria Ondarearen Turismo Estrategia zehazteko lan-ildo bat abiarazi duela aprobetxatuta eta Eibarko Udalak eskatuta, Eibarko industria-ondarearen turismo-produktu bat sortzeko lehen pausoak eman ziren. Aurreko urtean bezalaxe, 2019an ere, Kultura Sailarekin eta Egoibarra erakundearekin koordinatuta, Eibarko industria-ondarearen turismo-balioa ezagutzera emateko lanek aurrera jarraituko dute. Haren helburua izango da Eibarko Armagintzaren Museoaren (udalerriko industria-ondarearekin lotua) turismo-posizionamendua indartzea. Halaber, lankidetzaren abiaraziko da Elgoibarko Makina Erremintaren Museoarekin.

Jarduketa horiek martxan jartzeko, behar-beharrezkoa izango da eskumeneko erakundeek konpromisoa hartzea, eta finantzaketa-aukerak eskura izatea.

C. MICE - NEGOZIO-TURISMOA.

MICE eta lan-arrazoiengatiko bisitariak.

MICE turismoa negozio-, pizgarri-, batzar- eta ekitaldi-turismoa da. 2018an, azterketa bat egin zen lanaren eta eskualdean MICErekin lotuta egiten diren ekimenen ondorioz etortzen diren bisitarien jokabidea ezagutzeko. Hori dela eta, ekimenak proposatuko dira esparru horretan.

Jarduketa horiek martxan jartzeko, behar-beharrezkoa izango da eskumeneko erakundeek konpromisoa hartzea, eta finantzaketa-aukerak eskura izatea.

D. GASTRONOMIA-TURISMOA.

Debabarreneko I. Gastronomia Klubaren esparruan, prestakuntzarako, sentsibilizatorako eta, batez ere, klubeko kideei eskatzen zaizkien ebaluazioetarako laguntza eman zen. 2019an, Gastronomia Kluba dinamizatzeko ekintza aurreikusten dira (Produktu Klubaren batzarrak), bai eta, besteak beste, tripontzien lehiaketak, sustapenak, ekoizle eta aliatuekiko lankidetzak, gastronomia-esperientzien berrikuspena eta gastronomia-agenda ere.

2019rako, helburua da klubean guztira 24 enpresa egotea.

Aurrekontua: 16.125 € + BEZ

Finantzaketa-plana: (diru-laguntzen mende) % 50, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza; % 50, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza.

E. TURISMO-ESKAINZA DIBERTSIFIKATZEA ETA HOBETZEA.

Debegesak turismo-eskaintza hobetzen eta dibertsifikazioa sustatzen jarraituko du; batik bat, Debabarreneko kostaldeko udalerrietako ostatu-hornidura hobetzen.

1.5.4. URTAROKOTASUNAREN AURKA EGITEA ETA BIZTANLEEK TURISMO-JARDUERAREKIN BAT EGIN DEZATEN LORTZEA.

MERKATURATZEA SUSTATZEA ETA BIDERATZEA.

Turismo-marketinarekin lotutako lanak indartzen jarraituko du Debegesak, eta sustapen-jarduketak egiten. Oro har, jarduketa horiek San Sebastian Region-en Euskal Kostaldea izeneko ekimenaren eskutik egingo dira.

o Debabarreneko produktuak eta helmugak sustatzea.

2019an, Debegesak sustapen-jarduketak egiten jarraituko du; alde batetik, Debabarreneko eskualdea turismo-helmuga gisa sustatzeko, eta, beste batetik, produktu espezifikokoak sustatzeko. Horretarako, komunikazioko eta publizitateko material eta kanal espezializatuak behar dira.

o Debabarreneko sustapen-liburuxkak etengabe eguneratzea eta argitaratzea.

- Euskal Kostaldearen liburuxka - Debabarreneko helmuga.
- Debabarrenaren webgunea.
 - o Debabarrena Turismoa.
 - o Debabarrena Gastronomikoa.

- **Turismo-azokak.**

Ohiko turismo-azoketara joango gara, edo Gipuzkoako kostaldeko beste udalerrri batzuetako kideek ordezkatu gaituzte, bai Euskadiren markarekin, bai Gipuzkoaren irudiarekin. Hain zuzen ere, azoka hauetara joatea daukagu aurreikusita: Fitur, SITC, Sevatur, Expovacaciones, Intur, Tolosa...

- **Publizitatea.**

2019an zehar, Debabarrena turismo-helmuga gisa sustatzeko aurreikusitako baliabide-plana gauzatu da. Besteak beste, eta kanpainaren xede-publikoaren arabera, hedabide orokorretan zein espezializatuetan sartuko dira iragarkiak.

Alde batetik, helmugak hedabide orokorretan sustatzeko publizitate-ekintzak aurreikusten dira; beste batetik, kanpaina espezifikoagoak egingo dira, esate baterako Trikuharrien Ibilbidearen eta Gastronomía Klubaren bisita-programarako.

- **On line eta sare sozialetako sustapena.**

Dinamizazioa eta sustapena nabarmenak izango dira web-orrian. Horretarako, behar-beharrezkoa da egungo web-orria goitik behera berrikustea, eta hura behar bezala eguneratzea eta dinamizatzea.

Community Managerreko kanpo-zerbitzuari eutsiko zaio, sare sozialetan eskualdearen eta haren turismo-proposamen nagusien berri emateko.

- **Gipuzkoako kostaldearen sustapena**

Ohikoa denez, Gipuzkoako kostaldeko eskualdeek baterako sustapen-kanpainak egingo dituzte 2019an. Ildo horretan, Frantziako Sud Ouest aldizkarian iragarkiak sartzeari dago aurreikusita. Gainera, elkarrekin joango gara turismo-azoketara (Tolosa eta Intur).

- **Gipuzkoa Film Commission batzordea**

Gipuzkoa Film Commission batzordearekin elkarlanean jarraituko dugu, produkzioak eta ekitaldiak Debabarreneko eskualdera erakartzeko.

Aurrekontua, gutxi gorabehera (merkaturatzea sustatzea eta bideratzea): 30.746 € + BEZ

Finantzaketa-plana: (diru-laguntzen mende) % 50, Eusko Jaurlaritzaren (LPT) / Turismo Hitzarmena / Udalen unean-unekeko ekarpenak.

1.5.5. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA, PROFESIONALA ETA BEZEROARENGANA ORIENTATUA SUSTATZEA, BIKAINASUNA, BEZEROEN GOGOBETETZE ETA LEIALTASUNA LORTZEKO.

Debabarrena Turismoarekin lankidetzan aritzen diren erakundeen artean, lankidetzaren publiko-privatua da Debabarreneko Plan Estrategikoko lehentasunezko ardatzetako bat. 2016az geroztik, Debabarreneko turismo-helmuga hobetzen eta prestatzen aktiboki jarduten duten zenbait erakunde daude eskualdean. Erakunde horietan, hauek hartzen dute parte: eskualdeko ostalduak, jatetxeak, turismo aktiboko enpresek, ekoizleak eta turismo-baliabideak.

Lankidetzaren publiko-privatu horretan, erakunde horientzat prestatutako zerbitzu-katalogo bat dago.

2019an zehar, lan-ildo hori indartzen jarraituko dugu.

BERRIKUNTZA ETA KALITATEA SUSTATZEKO EKINTZAK.

- **Helmugako turismo-kalitateko jardunbide onen programa (SICTED).**

Deskribapena:

Establezimenduaren barne-kudeaketa eta bezeroaren arreta eta gogobetetzea hobetzea du helburu. Horretarako, Basquetourrek garatutako lan-metodologia bat erabiltzen dugu.

Helburua: Guztira turismo-arloko 26 enpresak parte hartzea da helburua.

Ekintzak:

- Laguntza teknikoko eta pertsonalizatuko bisitak, programan parte hartzen ari diren enpresetara.
- Laguntza-bisitak, kanpo-ebaluazioetan.

- **IKTen jardunbide onen programa.**

Deskribapena:

Tecnaliarekin elkarlanean, proiektuak Debabarreneko turismo-enpresen maila teknologikoa hobetzea du helburu.

Helburua: Debabarreneko turismo-arloko zortzi enpresak parte hartzea.

Ekintzak:

- Diagnostiko pertsonalizatu bat egitea.
- Urteko hobekuntza-plan bat zehaztea, aurreikusitako helburuak betetzeko.

- **Europako Ekoetiketa programa.**

Deskribapena:

BASQUETOURek Energiaren Euskal Erakundearekin eta IHOBERekin lankidetzan sustatutako proiektu bat da, turismo-ostatuari Europako Etiketa Ekologikoa lortzen laguntzeko. Etiketa hori lortzeko, ostatuak euren energia- eta ur-kostuak txikitu beharko dituzte, euren jarduerak ingurumenean dituen inpaktuak txikitzeaz gainera.

Helburua: enpresa bat.

Aurrekontua gutxi gorabehera: (SICTED; IKT, EKOETIKETA) 13.600 € + BEZ

Finantzaketa-plana (diru-laguntzen mende): % 50, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza (LPT); % 20, enpresen ekarpenak; % 30, Kudeaketa Plana.

1.6. ENERGIA-EREDU LEHIAKOR BAT GARATZEA, ENERGIA-ERAGINKORTASUNEAN ETA TOKIKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUAN OINARRITUTA.

Debabarreneko Energia Estrategia 2013an onartu zen. 2018an, Estrategiari buruz hausnartzeko prozesua hasi zen. Prozesu haren helburu nagusia eskualde-mailako funtsezko ekintzak planifikatzea izan zen, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren aldetik berdinzaleagoa, orekatuagoa eta jasangarriagoa den energia eredu batera aldatzeko. Testuinguru horretan, Gipuzkoako lurraldeari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren laguntza jasotzen ari gara. Hain zuzen, hitzarmen baten bidez, azterketak egiteko aukera ematen du eta garapen-agentziei laguntzen die lan-esparru horretan. Hori dela eta, behin hitzarmen horren finantzaketa-ildoak ezagutu eta eskualdearen lehentasunak zehaztu ostean, hitzarmenaren esparruan garatu beharreko ekimenak proposatuko dira. Ekimenak Energia Mahaian adostuko dira, eta Debegesako Administrazio Kontseiluak onartu beharko ditu. Neurri batean, GFAk finantzatuko ditu ekintzak, baina eskualdeko udalerrri guztietan egingo dira.

Azken urteetan bezala, Debegesak energia-esparruan lan egiten jarraituko du, Debabarreneko Energia Estrategia eta hartan 2019an egin daitezkeen aldaketak oinarri hartuta.

1.6.1. ESKUALDEKO ENERGIA-EREDU BERRI BAT DISEINATZEA, DESZENTRALIZAZIOAN, ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERAN ETA ERAKUNDE ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUTA.

o Debabarreneko Energia Mahaia.

Debabarreneko Energia Mahaia udaletako politikariek eta/edo teknikariek osatzen dute. Haren helburua orain arteko lan-dinamikari eustea da. 2019an, honako hauek izango dira mahaiaren zeregin nagusiak:

o Energia-politika iraunkorren alde aliantza sare-bat sustatzea.

Azitain industrialdeko energia-mikrosarearen proiektu pilotuaren bideragarritasuna aztertze aldera, Debegesak erakunde publiko eta pribatu nagusiekin harremanetan jartzen jarraituko du, proiektuak aurrera egiten duela bermatzeko.

o Energia Jasangarriko Plan Estrategikoa.

Prozesu parte-hartzaile baten bidez, 2018an Debabarreneko Energia Estrategiaren inguruan hasitako hausnarketa-prozesua burutu nahi da. 2019an, honako hauek izango dira lan nagusiak:

- Debabarreneko udalerrietako energia-heldutasuna zehaztea eta hobekuntza-jarraibideak ezartzea.
- Debabarreneko energia-arloan desiragarria den etorkizuna zehaztea.

1.6.2. ARLO GUZTIETAN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA SUSTATZEA.

DEBABARRENEKO ERAIKIN PUBLIKOETAKO JARDUNBIDE ONEN GIDA.

Ikastetxeetako energia-kudeaketarekin lotutako jardunbide onen gida bat egingo da.

1.7. UDALEI LAGUNTZEKO BESTE PROZESU BATZUK.

Udalek Debegesa baliabide propio izendatzen duten neurrian, haientzat interesgarriak diren proiektuei ekin ahal izango zaie, betiere, eskualdeko estrategiekin eta lehentasunekin bat badatoz. Alderdi interesdun guztiek adostu beharko dituzte proiektuak, eta enkargu baten bidez formalizatu. **Hortaz, aurreko kasua betetzen bada, aurkeztutako aurrekontua handitu egin daiteke.**

Halaber, atal honetan, agentziak aspaldi egiten dituen ekintza operatiboagoak ere jasotzen dira:

- Ingurumen-proiektuei laguntzea.
- Udalek garapen jasangarriaren arloan garatzen dituzten estrategiei eta proiektuei laguntzea.
- Hirigintza-arloko aholkularitza: 2019an, Debegesak udalaz gaindiko plangintzari buruz aholku ematen jarraituko du, baldin eta udalek eskatzen badiote.
- 2019an, Debegesak diru-laguntzak eskatzen, justifikatzen eta aztertzen lagunduko du, baita memoriak eta txosten teknikoak egiten ere, baldin eta udalek eskatzen badiote.
- 2019an zehar, Debegesa eskualdeko eta tokiko proiektuak Europako proiektuetan sartzen ahaleginduko da.

2. KALITATEAREN ETA SISTEMEN KUDEAKETA.

- Aurreko urteetan bezala, DEBEGESAk kalitatea sustatzen jarraituko du.

2.1. EFQM

- Prozesu bidezko kudeaketa.
- Autoebaluazioa.
- Barne-komunikazioa.
- Langileen parte-hartzea, konpromisoa eta motibazioa.

2.2. 5 S-EN PROIEKTUA.

- Gurutzatutako barne-ikuskapenak.

2.3. GAITASUNEN KUDEAKETA.

- Prestakuntza.

Prestakuntza espezifikoko ikastaroak 2019ko Prestakuntza Planean zehaztuko dira.

2.4. SISTEMEN KUDEAKETA.

A. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA.

Mutualiako Laneko Arriskuaren Prebentzioko zerbitzuarekin harremanetan egotea, eta espezialitate teknikoak eta langileen osasunaren zaintza koordinatzea jarduera hauetan:

- Enpresa-jarduerak koordinatuz gero, jarraitu beharreko irizpideak ezartzea eta haien berri ematea. Larrialdi- eta prestakuntza-plana berrikustea.
- Ebakuazio-simulazioa.
- Lanpostuak aztertzea, datuak bistaratzeko pantailekin.
- Prebentzio-plana ezartzea.

Adierazlea:

Prebentzio-planaren betetze-maila handitzea: egindako/aurreikusitako ekintzen kop. % 100.

B. EUSKARA-PLANA.

- Debegesaren aurkezpen ofizialetan, euskararen erabilera handitzea, onartutako hizkuntza-arauak aplikatuta.
- Publizitatean euskara gehiago erabiltzea.
- Euskararen Kudeaketa Plana urtean bitan berrikustea, zer aurrerapen egin diren jakiteko.

- Prestakuntza espezifikoaren ematea, premien arabera.
- Debegesako langileen artean euskararen erabilera sustatzen jarraitzea. Horretarako, euskara-eskolen alternatibak aztertzea, hala nola berbalagun programak.

Adierazlea:

Euskararen Kudeaketa Planaren betetze-maila, helb.: % 85.

Euskarazko hizkuntza-arauen betetze-maila: % 100.

2.5. BESTE BATZUK.

A. LANGILEEN ARLOKO HELBURUAK.

2019rako orduak: 1.670 ordu urtean..

B. KOMUNIKAZIO- ETA MARKETIN-HELBURUAK.

Webgunea hilean behin berrikusiko da, eta albisteak sortu ahala edo, adibidez, proiektu bat hasten denean sartuko dira.

FUNTSEN JATORRIA ETA ERABILERA**JATORRIA**

Udalak, AOetan:	618.273,64 €
Udalak (partida operatiboa):	18.000,00 €
GFA (foru-aldundiak):	362.700,00 €
Eusko Jaurlaritza:	187.625,12 €
Europar Batasuna (Europako programak):	109.864,00 €
Enpresak eta beste batzuk:	95.570,00 €

JATORRIA, GUZTIRA**1.392.032,77 €****ERABILERA**

Udalen prozesua:	784.328,77 €
Herritarren prozesua:	121.664,00 €
Pertsonen prozesua:	215.540,00 €
ETE-en prozesua:	252.500,00 €
Partida operatiboa:	18.000,00 €

ERABILERA, GUZTIRA:**1.392.032,77 €**

3. LAN-ARAUDIA.

3.1. DEBEGESAKO ORDAINSARI-SISTEMA

2015ean, enpresak lan-hitzarmen bat sinatu zuen langile guztiekin. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 31rako zen. 2019an, enpresa-hitzarmen hori berrikusiko dugu.

3.1.1. BALORAZIOAREN HELBURUAK.

Ordainsari-sistema giza baliabideen kudeaketaren atal garrantzitsu bat da, eta pertsonen balorazioa da haietako bakoitza lanpostu egokian ote dagoen jakiteko teknika. Helburu hauek lortu nahi dira:

- DEBEGESAren estrategiekin bat datorren ordainsari-sistema izatea.
- Maila bakoitzeko eduki profesionalak zehaztea.
- Lanpostuetako ordainsariak dagokien mailara egokitzea, barne-koherentzia lortzeko, eta ordainsaria ingurunearekin eta egin beharreko lanarekin bat datorrela bermatzeko.
- Egitura dinamizatzen duen sistema bat ezartzea, profesional egokiak igoz, ekonomikoki eta profesionalki motibatuz, eta DEBEGESAn partaidetza- eta igoera-kultura sor dadin lagunduz.

3.1.2. ORDAINSARI-SISTEMAREN FAKTORE ERABAKIGARRIAK ETA EZAUGARRIAK AZTERTZEA.

DEBEGESA erakunde konplexua da helburuei dagokienez, baina bakuna, egiturari dagokionez. Hala ere, helburuekin lotutako konplexutasuna dela eta, zaila da emaitzak ebaluatzea.

a. Antolaketa-egiturak ezaugarri hauek ditu:

- Prozesuetan oinarritutako egitura (udalak; herritarren, enpresen eta pertsonen dinamizazioa; kalitatearen eta sistemen kudeaketa; marketina eta komunikazioa), nahiz eta eremu funtzional operatiboetan banatua.
- Sinergia guztiak aprobetxatzen ditu.
- Zentralizatua, enpresa-estrategiei dagokienez.
- Autonomia operatiboa du, prozesuen eta eremuen arabera.
- Maltza eta moldagarria.

b. Enpresaren errealitate hori dela eta, beharrezkoa da hartako profesionalak ezaugarri hauek betetzea:

- Talde tekniko dinamikoa eta aditua departamentu bakoitzean.
- Euren lan-arloari buruzko ezagutza espezifikoak izatea.

- Ezagutza anitzeko teknikariak izatea, eta hainbat arlotan aritzeko gai.
 - Taldean eta lankidetzan aritzeko jarrerarekin lan egiteko gai izatea.
- c. Balorazioa egiteko irizpideak honako hauek dira:
- Pertsonalizatua izatea eta etengabe ebaluatzea.
 - Malgutasun eta aldagarritasun handia izatea.
 - Pertsonak inplikatzeko lortutako emaitzetan.
 - DEBEGESAn ordainsari-politika sortzea.

3.1.3. LANGILEEN ORDAINSARIA.

- a. Langileen ordainsarian, araudi honetan jasotako osagai guztiak bilduko dira, sinatutako enpresa-hitzarmenean ezarritakoari jarraituz, eta langileen estatutuarekin eta arloko araudiarekin bat etorritik.
- b. Araudi honen ondorioetarako, hauek izango dira ordainsari-kontzeptuak:
- Lanpostu bakoitzak antolaketa-egiturako gainerako lanpostuekiko duen garrantzi erlatiboa.
 - Langilearen errendimendua eta efikazia.
 - Antzintasuna.

3.1.4. ORDAINDU BEHARREKO ORDUAK.

Lan-arauetan urtero ezarritakoak izango dira ordaindu beharreko orduak; besteak beste, egiaz lan egindakoak, oporraldiari dagozkionak, eta ordaindutako baimenak eta absentiak.

3.1.5. MAILA PROFESIONALAK.

DEBEGESAk maila profesionalak arautzeko sistema bat adostu zuen, eta urtero eguneratzen du. Pertsona bakoitza zer mailatan kokatzeko, oinarrizko parametro hauek ebaluatu dira:

- Beharrezko ezagutza teorikoak eta praktikoak.
- Beharrezko lanbide-esperientzia.
- Hartu beharreko erabakien eta egin beharreko lanaren konplexutasuna.
- Lanpostuan izan beharreko harremanen maila.
- Behar den autonomia.

- Araudi honen 1.2.b. atalean jasotako ezaugarriak eta gaitasunak.
- Maila profesionalak aurreratze- eta igoera-irizpide batean oinarritzen dira.

3.1.6. ANTZINATASUN-PLUSA.

Pertsona batek enpresan daraman denbora antzinasun-plusaren bidez ordainduko da. Ordainsari-osagai horrek ez ditu lanpostuaren funtzioak kontuan hartzen; langileek DEBEGESA n daramaten denbora, besterik ez. Ordainsaria indarreko legeen eta enpresa-hitzarmen arabera izango da.

3.2. LANTOKIKO LAN-ARAUDIA.

3.2.1. URTEKO BENETAKO LAN-ORDUTEGIA.

2019. urtean, 1.670 lan-ordu egin beharko dira.

Salbuespenak salbuespen, derrigorrezkoa da enpresara joatea. Salbuespenak langileek euren lana egiteko premien mende egongo dira.

Edozein irteera pribatu egiteko denbora lanegun berean edo, irteera pribatuaren ordu-kopuruaren arabera, hurrengoetan berreskuratuko da. Dena den, beharrezkoa izango da DEBEGESAko arduradunak **aldez aurretik irteera horren berri izatea**, eta bisitatutako pertsonaren edo erakundearen ziurtagiria aurkeztea. Honako hauek hartzen dira irteera pribatutzat:

- Irteera medikoa, bajarik gabe.
- Edozein motatako zeregin partikularrak.
- Pertsonak derrigorrez eta justifikatuta lanpostutik irten behar izatea eragiten duten gainerako guztiak.
- Ondorio horietarako, enpresa-hitzarmenean jasotakoa hartuko da kontuan.

3.2.2. LAN-EGUTEGIA.

JAIK

Urte Berria	Urtarrilaren 1a
San Jose	Martxoaren 19a
Aste Santua	Apirilaren 18a, 19a eta 22a
Lanaren jaia	Maiatzaren 1a
San Juan	Ekainaren 24a eta 25a
Santiago Apostolua	Uztailaren 25a
San Ignacio	Uztailaren 31
Andre Mariaren Jasokunde	Abuztuaren 15a
Santu Guztien eguna	Azaroaren 1a
Konstituzioa	Abenduaren 6a
Gabonak	Abenduaren 23tik 31ra

ZUBIAK

Martxoaren 18a
Uztailaren 26a

OPORRAK

Abuztua: 30 egun natural

<u>EGUTEGIA</u>	<u>8,00 ordu</u>	<u>7,00 ordu</u>	<u>ORDUAK, GUZTIRA</u>
Urtarrila:	18	4	172
Otsaila:	16	4	156
Martxoa:	14	5	147
Apirila:	16	3	149
Maiatza:	17	5	171
Ekaina:	14	4	140
Uztaila:		20	140
Abuztua:	--	OPORRAK	--
Iraila:	17	4	164
Urria:	19	4	180
Azaroa:	16	4	156
Abendua	12	2	110
	159 egun	59 egun	Orduak: 1.685 ordu

Egutegi hori **erreferentzia** bat da. 2019an, 1.670 lan-ordu egongo dira. Langile bakoitzaren lan-orduak banaka erregulatu eta kontrolatuko dira, departamentuarekin eta zuzendaritzarekin koordinatuta. Egutegian jasotakoez bestelako jaiegun bat hartu nahi izanez gero, langileak zuzendaritzari proposatu behar dio, gutxienez 15 egun lehenago. Lan-karga eta enpresaren premiak kontuan hartuta emango zaio ala ez.

Ordutegia

Astelehenetik ostegunera: 8:00etatik 16:00etara

Ostiraletan: 8:00etatik 15:00etara

Uztaila: 8:00etatik 15:00etara (zazpi orduko lanaldia)

Lanegunak: 159

LAN EGIN BEHARREKO ORDUAK, GUZTIRA: 1.670 ORDU URTEAN

❖ **Oporrak**

Oporretarako, 30 egun natural egongo dira (2,5 egun natural lan egindako hil bakoitzeko).

❖ **Lanerako ezintasun iragankorraren izapidea**

Indarrean dagoen araudia erabiliko da.

3.3. GASTUEN KONPENTSAZIOAK

• **Kilometroak**

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera kilometroko 0,438 euro ordainduko zaie enpresako langileei, eta 0,306 euro bekadunei eta kanpoko lanetarako.

• **Dietak**

Langileak jasotzen duen konpentsazioa da dieta, enpresan duen lanaren ondorioz lanpostutik eta etxetik lekualdatu eta kanpoan bazkaldu, afaldu edo lo egin behar duenean.

Dieten zenbatekoa desberdina izango da, langileak zer lekutara joan behar duen. Horretarako, eremu geografiko hauek bereizten dira: Euskadi, Estatua eta atzerria.

Dietak fakturaren kontra ordaintzen dira, betiere, gastuen ziurtagiriak aurkeztu ondoren. Ziurtagiriak inprimatuta aurkeztuko dira, eta igorlearen IFK eta datuak izan beharko ditu. Ez da ezaugarri horiek ez dituen ziurtagiririk onartuko.

• **Beste gastu batzuk**

- a) Garraio- eta komunikazio-gastuak.

Joan-etorriek eragiten dituzten gastuak dira: taxiak, aparkalekuak, autobideak, etab.

DEBEGESA ordaindu ditzan, beharrezkoa da behar bezala justifikatzea.

- b) Beste gastu batzuk.

Oro har, zenbateko txikikoak izateagatik dokumentu bidez justifikatu ezin diren gastuak edo gonbidapenak ez dira konpentsatuko.

- **Gastuak ordaintzeko baldintzak**

Langileari dietak, ibilgailuaren erabileraren konpentsazioa eta beste gastu batzuk ordaintzeko, hau izango da beharrezkoa:

- a) Langile bakoitzak bere likidazioa egitea, baita gastua langile batena baino gehiagorena bada ere. Enpresak jakin egin behar du zer zenbateko ordaintzen dion pertsona bakoitzari, administrazio- eta auditoretza-kontrolerako.
- b) Bidaien likidazioaren orria behar bezala betetzea: eguna, kilometro-kopurua, helmuga, etab.; hau da, orri horretan jasotako kontzeptu guztiak.
- c) Zalantzarik badago, administrazio-arduradunari galdetu behar zaio.
- d) Bidaien likidazioaren orri guztiek dagokion arduradunaren oniritzia izan behar dute.

3.4. PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK.

Enpresa honen araua da langileen artean behar diren prestakuntza- eta birziklapen-ikastaro guztiak sustatzea eta erraztea. Horretarako, lan-orduak eta bidaia-dietak ematen ditu, ikastaroei buruzko informazioaz gain. Gai hau arrazionalizatzeko aldera, kasuak azalduko ditugu.

- Enpresak eskatutako ikastaroak:
 - a) Ikastaroko orduen % 60 enpresaren kontura izango dira; ez, ordea, bidaia-orduak, kilometroekin batera ordaintzen baitira.
 - b) Langileak bidaia-orduak eta ikastaroko orduen % 40 berreskuratu beharko ditu.
 - c) Matrikularik badago, enpresak ordainduko du.
- Langileak eskatutako ikastaroa, enpresaren jarduerarekin lotua:
 - a) Langileak ikastaroko orduen % 50 ordainduko du.
 - b) Bidaia-orduak langilearen kontura izango dira, eta lekualdaketaren kostua, enpresaren kontura. Matrikularik badago, enpresak ordainduko du.
- Enpresarekin loturarik ez duen ikastaroa:
 - a) Oro har, ez dira ez orduak ez kilometroak ordainduko. Egin gabeko orduak berreskuratu beharko dira.
 - b) Kasu espezifiko bakoitza departamentuko zuzendariarekin aztertuko da.

- Hizkuntza-ikastaroak:
 - a) Lan-orduetan, enpresak orduak emango ditu, eta langileak irakaslearen kostua ordainduko du.
 - b) Ikastaroa lanetik kanpoko orduetan egiten denean, enpresak irakaslea jarriko du.
 - c) Talde ugarien kasuan, hizkuntzak enpresarentzat eta langileentzat tresna garrantzitsua denez, beste aukera batzuk aztertuko dira.

4. GUZTIZKO GASTU ARRUNTAREN AURREKONTUA

	<u>2019. urtea</u>	<u>2018. urtea</u>	<u>Aldakuntza</u> <u>2018arekiko</u>
PERTSONAL-GASTUAK	653.575,38	550.603,00	% 18,70
Soldatak	496.821,41	406.958,00	(*) % 22,00
Geroa	788,00	755,00	% 4,30
Antzinasunagatiko gehikuntza	2.411,00	2.352,00	% 2,50
Bidaia-gastuak	28.050,00	27.500,00	% 2,00
Gizarte Segurantza	120.540,97	108.172,00	% 11,40
Langileen prestakuntza	4.964,00	4.866,00	% 2,00
FINANTZA-GASTUAK	1.150,00	1.038,00	% 10,78
Abalen eta beste batzuen interesak	1.150,00	1.038,00	% 10,78
TSSE	645254,63	561.637,00	% 14,80
Alokairuak	18.081,54	17.727,00	% 2,00
Konponketa eta kontserbazioa	7.239,5	7.095,00	% 2,00
Ura	1.700,34	1.667,00	% 2,00
E. elektrikoa	9.677,00	8.797,00	% 10,00
Beste enpresa batzuen lanak	585.864,59	504.488,00	% 16,00
Aseguru-primak	17.312,46	16.973,00	% 2,00
Gasa	5.379,20	4.890,00	% 10,00
ZERGAK	1.782,00	1.747,00	% 2,00
GARRAIOAK ETA PLEITAK	635,80	578,00	% 10,00
ASKOTARIKO GASTUAK	72.119,76	70.594,00	% 2,16
Inprimakiak eta paperak	6.956,40	6.820,00	% 2,00
Idazteko materialak	9.199,00	9.019,00	% 2,00
Liburuak eta aldizkariak	500,00	500,00	% 0,00
Posta	1.071,00	1.050,00	% 2,00
Telefonoa	7.778,50	7.626,00	% 2,00
Ordezkaritza-gastuak	1.581,00	1.550,00	% 2,00
Aholkularitza	16.500,00	16.140,00	% 2,10
Garbiketa-zerbitzua	9.460,00	9.267,00	% 2,00
Zerbitzu osagarriak	2.533,00	2.412,00	% 5,00
Beste gastu batzuk	13.135,56	12.878,00	% 2,00
GARAPEN	3.405,30	3.332,00	% 2,20
INBERTSIOA LAP-EAN	2.470,00	2.422,00	% 2,00
INBERTSIOA BERRIKUNTZAN	2.627,50	2.576,00	% 2,00
AMORTIZAZIOA	9.676,74	9.487,00	% 2,00
AUTOKONTSUMOAREN BEZ	62.131,00	60.853,00	% 2,10
GUZTIRA	1.392.032,77	1.261.535,00	% 10,34

Udalek **636.273,64 euroko** ekarpena egingo diete gastu orokorrei, partida operatiboa barne.

(*) Beste bi pertsona kontratatuko dira 2019an.

UDALEN PARTE-HARTZEAREN FINKAPENA

UDALAK	2018/01/01EKO BIZTANLERIA	%	UDALEN EKARPENA GASTU OROKORREI	Txirringulari Elkartea	AISIA ETA TURISMOA	TOKIKO AGENDA	GUZTIRA 2019. URTEAN	2019 / 2018
DEBA	5.457	7,49	40.711,95	1.348,89	11.354,03	2.248,15	55.663,02	% 0,92
EIBAR	27.435	37,68	204.678,83	6.781,52	9.955,29	11.302,53	232.718,16	% 1,91
ELGOIBAR	11.586	15,91	86.437,36	2.863,88	4.204,19	4.773,14	98.278,57	-% 22,72
ERMUA	15.927	21,87	118.823,39	3.936,91	5.779,40	6.561,52	135.101,23	% 1,64
MALLABIA	1.153	1,58	8.601,96	285,00	418,39	475,01	9.780,35	% 0,63
MENDARO	2.010	2,76	14.995,61	496,84	729,36	828,07	17.049,88	% 1,83
MUTRIKU	5.357	7,36	39.965,90	1.324,17	11.145,97	2.206,95	54.642,99	% 1,38
SORALUZE	3.895	5,35	29.058,65	962,78	1.413,37	1.604,64	33.039,45	% 1,75
GUZTIRA	72.820*	100,00	543.273,64	18.000,00	45.000,00	30.000,00	636.273,64	-% 3,07

* 2018an baino 100 biztanle gutxiago (% 0,14).

